



Eusko Jaurlaritzak, 2012-2016 Legegintzaldian, **bake eta bizikidetzaren** arloan sortutako dokumentuen bilduma

1. Proiektu orokorra
2. Iragana argitzea
3. Biktimak
4. Memoria
5. Espetxe-politika

6. Hezkuntza

7. Bizikidetzarako kultura eta Giza Eskubideak

2016ko urria
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Aurkibidea

Zazpi libururen bilduma honen aurkezpen orokorra.	5
Liburu honen aurkezpena.	6
1. dokumentua. Eusko Jaurlaritzaren gizarte eta hezkuntza proiektuaren oinarriak bizikidetza-arloan.	9
2. dokumentua. Gizalegez Akordioa.	17
3. dokumentua. Elkarrekin Programa.	25
4. dokumentua. Adi-adian hezkuntza-modulua.	35
5. dokumentua. Adi-adian hezkuntza-moduluaren irakasleentzako gidaliburu didaktikoa.	45
6. dokumentua. Eusko Jaurlaritzaren eta hiru euskal unibertsitateen arteko oinarrizko hitzarmena.	61
7. dokumentua. Ahotsak Proiektua.	69

Zazpi libururen bilduma honen aurkezpen orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko hauteskundeak urriaren 25ean izan ziren. Azaroaren 20an, X. Legegintzaldiari hasiera eman zion Eusko Legebiltzarrak. Abenduaren 13an, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakari izendatu zuten. Sailburuak lanpostuaz jabetu ondoren, abenduaren 18an, lehen aldiz bildu zen gobernu-kontseilua.

Hamalau hilabete lehenago, 2011ko urriaren 20an, ETAk jarduera armatua behin betiko utziko zuela iragarri zuen. Zenbait hamarkadaren ondoren, indarkeriaren eta terrorismoaren mehatxurik gabe ekin zioten Legegintzaldi bati euskal politikak eta gizarteak.

Hori horrela izanik, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak hartu zuen lehen erabakietako bat Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortzea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari atxikita, eta Lehendakariaren mende. 2013ko urtarrilaren 30ean, Jonan Fernandez izendatu zuen Lehendakariak Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi.

Idazkaritza horrek sail ezberdinetara atxikitako bi zuzendaritza bildu zituen egitura berean: Biktimen Zuzendaritza –ordura arte, Herrizaingo Sailaren mende zegoen– eta Giza Eskubideen Zuzendaritza –aurretik, Justizia Sailaren barruan zegoen. Hala, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren egitura berriak Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza bakar bat izan zuen, Monika Hernando buru zuela.

Legegintzaldi honetan, 14 plan estrategiko onartu ditu Eusko Jaurlaritzak; horietan lehena, 2013ko abendukoa, Bake eta Bizikidetzeta Plana izan zen. Horren ondorio dira, hain zuzen, 18 ekimen eta programa eta jarduera ugari. 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzeta Plana garatzeko prozesuan, hainbat dokumentu sortu dira Legegintzaldi honetan. Liburu-bilduma honek, bada, dokumentu nagusienak biltzen ditu zazpi liburukitan.

Hona hemen zazpi liburuon izenburuak: (1) Proiektu orokorra, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, eta (7) Bizikidetzaren kultura eta Giza Eskubideak. Seigarren liburu honek bizikidetzarako eta giza eskubideen hezkuntza-politikei dagozkien dokumentuak jasotzen ditu.

Liburu honen aurkezpena

Bakerako hezkuntzari erreparatuta, 2012-2016 Legegintzaldiak «Eusko Jaurlaritzaren gizarte eta hezkuntza proiektuaren oinarriak bizikidetzaren arloan» izeneko lana izan zuen abiapuntu; liburu honen 1. dokumentuan dago. Hasierako asmoen adierazpen bat da; geroago, berariaz islatu zen Bake eta Bizikidetzaren Planaren edukian, bai eta horren ondoriozko jardueretan ere.

Hezkuntzaren eremuan egindako lana ez zen zerotik hasi. Giza eskubideekin, bakearekin, bizikidetzarekin, gatazkak modu baketsuan konpontzearekin eta biktimekiko elkartasunarekin lotutako hezkuntzak bazuen ibilbide eta espazio propioa euskal hezkuntza- eta elkarte-sisteman. Hori dela eta, hasiera-hasieratik, Bake eta Bizikidetzaren Planak argi utzi zuen errefortzu izango zela eremu horretan.

Zehazki, zera zioen: «Gure hezkuntza-sistemak urteak daramatza lanean bizikidetzarako hezkuntzaren eremuan. Plan honen helburua ez da lan horren jabe egitea, zuzentzea, desagerraraztea edo eragozte. Aitzitik, ekimen hori gehigarri gisa definitzen da, indartzea duelako helburu. Salbuespenezko testuinguru sozialaren erdian, (bakea finkatzea) orain arte, irizpide onez, egin dena indartzeko jardun-lerro espezifikokoak eta gehigarriak ezarri nahi ditu.»

Horrek zenbait gauza zekartzan: Lehenik, ordura arte egindakoa errekonozitzea eta jarraitu beharreko ibilbide gisa moldatzea. Bigarrenik, Bake eta Bizikidetzaren Planak eremu honetan egingo dituen ekarpenak zehaztea; alegia, oso ekimen zehatzak, oso garrantzitsutzat jotako arloen berariazko osagarri izango zirenak. Ildo horretatik, lau ekarpen-ildo nagusi nabarmendu behar dira.

Lehena, giza duintasunaren pedagogiaren muina hezkuntza-akordio handi batekin indartzea, bakerako hezkuntzaren gako gisa. Hala, 2013ko urriaren 1ean, Euskadiko hezkuntza-eragile ia guztiek Gizalegez Akordioa sinatu zuten Donostiako Kursaal jauregian; liburu honen 2. dokumentuan dago jasota.

Giza eskubideen eta bizikidetzaren arloko hezkuntza unibertsalaren lau oinarrien gainean zehaztutako gizarte-hezkuntzako konpromiso bat laburtzen du edukiak. Bakearen aldeko eta indarkeriaren eta gatazka suntsitzaileen prebentzioko kultura bat lortzeko gizartearen, politikaren eta erakundearen arloan lan egiteak ados jartzea eskatzen du gutxieneko oinarri jakin batzuei dagokienez, oinarri horien potentzialtasuna askatasunez eta modu sortzaile eta askotarikoan garatu ahal izan dadin. Horretara bideratu zen Gizalegez Akordioa.

Eremu honetako bigarren ekarpena Elkarrekin Programa izan zen; horren edukia, bada, liburu honen 3. dokumentuan jaso da. Ekimen berria izan zen, eta Gizalegez Akordioan zehaztutakoak baliabide ekonomikoekin hornitzea zuen xede. Diru-laguntzen programa bat da, eta ikastetxeen eta gizarte zibileko erakundearen arteko lankidetzaren sustatzen du, bizikidetzarako hezkuntzako programei lotutako prestakuntza-, dinamizazio- eta aholkularitza-ekimenak bultzatzeko.

Programa hori betetz, 394 ekimen egin dira azken lau urteetan, eta horietan 295 ikastetxek eta 53 gizarte-erakundek parte hartu dute. Programa horri esker, indartu egin dira gizarte-erakundearen eta ikastetxeen arteko interakzioak, ekintza zehatzen bidez. Elkarrekin Programa Hezkuntza Sailaren eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren arteko akordio baten bidez garatu da; akordio horren arabera, bada, indartu egingo da giza eskubideekin, bakearekin, bizikidetzarekin, biktimekiko elkartasunarekin eta gatazkak modu baketsuan konpontzearekin lotutako hezkuntza.

Hezkuntzaren eremuko hirugarren ekarpena biktimekiko hezitzaileen esperientziak sistematizatzarekin du zerikusia. Aurreko bi Legegintzaldietan garatu ziren ildo honetako lehen ekimenak. Oinarri hori baliatuta, Adi-adian hezkuntza-modulua abiarazi zen Legegintzaldi honetan; liburu honen 4. dokumentuan biltzen da. Bi orduko saio batean edo bitan egiten da hezkuntza-proposamen hori, DBHko 4. mailan eta Batxilergoan. Ikasleek biktimekiko testigantzak entzuten dituzte eta, hala, giza duintasunaz, bizikidetzaz eta enpatiaz jabetzen dira.

«Adi-adian hezkuntza-moduluko irakasleentzako gida didaktikoa» izeneko 5. dokumentuak aurrekoa osatzen du. Irakasleek eskura duten tresna-kaxa bat da, eta hezkuntza-esperientzia honek proposatzen duen ibilbidean ikasleak laguntzeko balia dezakete. Ikuspegi kualitatibotik, oso balorazio ona egin diote ekimenari bertan parte hartu dutenek. Ikuspegi kuantitatibotik, 2014ko urtariletik 2016ko ekainera, 5.171 ikaslek hartu dute parte hezkuntza-modulu honetan, ikastetxeetan egin diren 132 saioetan.

Hezkuntzaren eremuko laugarren errefortzu-proiektuak bizikidetzarako hezkuntzaren arloan dauden web-espazioak berritzea, eguneratzea eta optimizatzea izan zuen helburu. Hori horrela, Eskola Bakegune webgunean bateratu ziren aurreko bi tresnok. Ez da horren dokumenturik jaso liburu honetan, baina hemen dago esteka (eskolabakegune.euskadi.eus), edukia irakurri eta biltzen dituen testu eta esperientziak kontsultatu ahal izateko.

Unibertsitatearen eremuak ere espazio propioa eta nabarmena izan du Bake eta Bizikidetzeta Planaren garapenean. Euskal Herriko Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko errektoreek esparru-akordio bat sinatu zuten 2014an Lehendakariarekin, eta, horren arabera, hiru unibertsitate-erakundeek Bake eta Bizikidetzeta Planaren garapenari ekarpen partekatu bat egingo diote urtero.

Liburu honetan jasota dago hitzarmena, 6. dokumentuan. 2014an egindako ekarpena gizarteratzearen arloan zentratu zen, eta espetxe-politikari buruzko liburuan sartuta dago. 2015ean egindako ekarpenari dagokionez, tresna didaktiko bat sortu zen bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza unibertsitatearen eremuan sartzeko; liburu honen 7. dokumentuan (Ahotsak Proiektua) jasota dago. 2016an egindako ekarpena, berriz, herritarrek oroimenaren arloan parte hartzeko tresna praktikoa bat sortzea izan da. Azken ekarpen hori liburu-sorta hau argitaratu ondoren amaituko da, beraz ezin izan da barne hartu.

Ahotsak Proiektuarekin, zehazki, unitate didaktiko bat sortu da, euskal kasuaren orain dela gutxi oroinenarekin erlazionatutako hamabi dokumental eta film eskaintzeko. Guztiek atxikita dute gida didaktikoa, unibertsitate-irakasleei zuzendua, eskoletan erabili dezaten. Osagarri modura, espazio bat ireki da eskolabakegune.euskadi.eus webgunean, 12 ikus-entzunezko baliabideei buruzko informazioa lortzeko. Lana jendar-tean aurkeztu baino lehen, esperientzia pilotu bat egin zen hiru unibertsitateetako 280 ikaslerekin. % 90en iritzian, esperientzia «oso positiboa» izan zen.

2012aren amaieran, bakearekin, bizikidetzarekin, giza eskubideekin, biktimekiko elkartasunarekin eta indarkeria eta gatazka suntsitzailleak prebenitzearekin lotutako hezkuntzaren agenda urtebete lehenago iragarri zen ETArekin terrorismoaren amaierak markatu zuen. 2016aren amaieran, bizikidetzarako hezkuntzaren agenda eraldatu, egokitu eta handitu egin zen, garai berrien erronketara begira. Erronkek zerikusia dute kultura, erlijio, bizipen eta jatorri ezberdinetako pertsonen eta taldeen bizikidetzarekin. Edo desberdintasun eta bazterketa modu berrien aurrean justizia eta berdintasuna izatearekin. Garai horretan, erantzuna eman behar diegu gizakien, gizartearen eta politikaren kontraesanei, arazo humanitario larriak planteatzen baituzte, esaterako, migrazioak eta errefuxiatuak hartzea. Hezkuntzak testuinguru horretan mugitu behar du.

2012-2016 Legegintzaldian egindako lanak giza duintasunaren pedagogiaren muina izan du ardatz. Errealitatea aldatu egiten da eta erronkak eraldatu egiten dira; baina oinarri horrek giza eskubideen hezkuntza-agendaren funts izaten jarraitzen du. Ildo horretatik, Legegintzaldi honetan egindako lana oinarri sendoa da hurrengoan jorratu beharko dena jarraitzeko eta berritzeko.



1. dokumentua

Eusko Jaurlaritzaren **gizarte eta hezkuntza proiektuaren** oinarriak bizikidetza-arloan

Eusko Jaurlaritzaren **gizarte eta
hezkuntza proiektuaren**
oinarriak bizikidetza-arloan

Gasteiz, 2013ko abendua

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Aurkezpena

Bost hamarkada baino gehiagoren ostean, ETAre indarkeriaren behin betiko amaiera heldu da. Horrek aukera handiak eta ugariak zabaldu ditu arlo soziopolitikoan zein hezkuntzarenean. Beharrezkoa da iragana lantzea, baita oraina ere, eta, batik bat, etorkizuna prestatzea. Abagune honetan, lehentasunezkoa da bizikidetzan etengabe inbertitzea; batez ere, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko hezkuntzan.

Hain zuzen ere, 2013-2016rako Bake eta Bizikidetza Planaren helburu bat da Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren artean lankidetzaren eredu bat ezartzea, giza eskubideen eta bakearen, biktimizekiko elkartzaren, bizikidetzaren eta gatazken konponbide baketsuaren aldeko hezkuntza sendotze aldera.

2013-2016rako Bake eta Bizikidetza Planaren hezkuntza-arloko oinarriak eta proiektu nagusiak aurkezten ditu dokumentu honek. 2013ko azaroan eta abenduan, iradokizunak egiteko aukera eman zitzaion hezkuntza-komunitateari. Epea amaituta, Euskadiko Eskola Kontseiluak egindako ekarpen guztiak jaso ditu dokumentuak.

I. Errefortzu osagarri bat ohiz kanpoko testuinguru batean

Gure hezkuntza-sistemak urteak daramatza lanean bizikidetzaren aldeko hezkuntzaren arloan. Bake eta Bizikidetzaren Planaren asmoa ez da arlo horretan egin den lan hori bereganatu, zuzendu, ezabatu edo eragozte. Aitzitik, osagarria dela esaten da, haren helburua aipatu lana sendotzea delako. Ohiz kanpoko gizarte-testuinguru batean, bakea bermatzen ari den honetan, orain arte taxuz egiten aritu dena sendotzeko jarduera-ildo berariazko eta osagarriak ezarri nahi ditu.

Esparru horretan, ikastetxeekin eta haien barruko eragileen komunitatearekin lankidetzaren bultzatzeko ekin-tza xumeak egin nahi dira. Abiapuntua Gizalegez Akordioa da, bizikidetzaren aldeko gizarte- eta hezkuntza-arloko konpromiso bat, joan den urriaren 1ean, Donostiako Kursoalen, hezkuntza-komunitateko eragileek sinatu zutena.

II. Gizalegez Akordioa, etapa berri honen abiapuntua

Bizikidetzaren urratzen duten gatazken oinarrian arrazoi kulturalak eta hezkuntzakoak nahiz jokabide pertsonalei zein kolektiboari lotutakoak daude, funtsean lau iturburu nagusi dituztenak: dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa eta sektakeria. Lau paradigma horiek sotilki txertatzen dira bai gizarte-kulturan bai norbana-koaren pentsamoldean. Haien ezaugarri komuna da normal bihurtzen dutela inposaketa, indarkeria, giza eskubideen urraketa eta bitarteko ez-etikoak erabiltzea.

- **Dogmatismoa.** Arrazoi osoa duzula eta egia osoaren jabe zarela uste izatean datza. “Segurtasun” pertzepzio hori nahitaezkoa da bitarteko ez-etikoen erabilera legitimatzeko eta bitarteko horiek erabiltzera ausartzeko. Dogmatismoa mugen kontzientzia nahikoa ez dagoelako sortzen eta garatzen da.
- **Fatalismoa.** Ikuspegi bat biktimista da, inposaketaz bestelako aukerarik ikustea eragozten duena. Indarkeriaren erabilera justifikatu egiten da: “ez dago beste aukerarik”, “gainera, haiek egiten dutena okerragoa da”. Zailtasunen erdian aukerak identifikatzeko ezintasuna du oinarrian.
- **Manikeismoa.** Arazoak aurrez ezarritako dikotomia batera murrizten ditu, kontzientziaren arabera aukeratzeko erantzukizunari muzin eginez. Demagogia arriskutsua da, “dena da baleko” modukoak indarrean jartzen dituelako eta aurkaria “etsaiaren irudi” izatera mugatzen duelako. Manikeismoa kontzientzia etikoan behar adina sakontzen ez denean hedatzen da.
- **Sektakeria.** Ideia bati giza eskubideei baino balio handiagoa ematen diogularik, ideia horren defentsa kolektibo eta intransigentea egitean datza. Bestea etiketa soil bihurtzen du. Gizatasunaren gaitze-prozesuak, eta are aberetze-prozesuak, elikatzen ditu. Giza duintasuna balio goren gisa behar bezala barneratuta ez izatean garatzen da.

Gatazka suntsitzailleen, giza eskubideen urraketan eta indarkeria-fenomenoen (indarkeria politikoa, sektarioa, klasista, arrazista, sexista, etnien artekoa, erlijioen artekoa...) prebentzioak zuzeneko lotura du bizikidetzaren urratzeko lau iturburu horiei ematen zaien erantzunarekin. Prebentzioaren aukera zera da, modu soil, iraunkor eta osagarrian hainbat eremutatik bizikidetzarako oinarri alternatiboak sustatzea. Hori da Gizalegez Akordioaren diagnostikoa eta zentzua.

III. Helburuak

- Modu ireki eta askotarikoan partekatzea giza duintasunean oinarritutako bakerako, bizikidetzarako eta gizartearen elkartzeko kultura bat eratzeko oinarritzko gizarte- eta hezkuntza-konpromiso bat.
- Bakea, bizikidetza, biktimekiko elkatasuna eta gatazken konponbide baketsua xede duten giza eskubideen aldeko hezkuntza- eta prestakuntza-ekimenak ugaritzen laguntzea.
- Indarkeriaren adierazpide ororen prebentzioa bultzatzea, giza eskubideen babes unibertsalaren aldeko konpromisoan heztea sustatuz.

IV. Irizpideak

- Proiektuak hezkuntza-curriculumaren esparruan txertatzea, eta haiek garatu eta aplikatzean ikastetxeen eta hezitzaileen autonomia errespetatzea.
- Giza eskubideen eta bizikidetzaren aldeko hezkuntzan diharduten eragileen, tokiko erakundeen eta gizarte zibileko ordezkarien arteko sinergia eta ikaskuntza-komunitatea sustatzea.
- Ikasleekin garatu beharreko hezkuntza-ekimenak lehenestea baliabide sortzaileak erabiliz –zinema, antzerkia, literatura, teknologia berriak, hizkuntzak...–, eta familien parte-hartzea sustatzea.

V. Jarduera-ardatzak

- **Gizalegez Akordioa.** Hezkuntza-komunitatea elkarlanean biltzea sustatzen du, bizikidetzarako hezkuntzaren lau oinarriren inguruko gizarte- eta hezkuntza-konpromisoaren ahalbideak modu irekian garatzeko.
- **Elkarrekin Programa.** Bizikidetzaren aldeko hezkuntzaren arloan ikastetxeek eta haietako eragileek garatzen dituzten dinamizazio-, prestakuntza- eta aholkularitza-ekimenak babesten, baliabidez hornitzen eta bultzatzen ditu.
- **Adi-adian Hezkuntza-modulua.** Biktima hezitzaileen programa eguneratzea du xede. Giza duintasunari, bizikidetzari eta enpatiari buruzko ikaskuntzak sustatzen ditu, giza eskubideen urraketen biktimei testigantzak entzuteko esperientziaren bidez.
- **Eskola Bakegune.** Hezkuntza-baliabideen webgune hori berritzea eta optimizatzea du xede. Hezkuntza-komunitatearen zerbitzura dagoen dokumentazio- eta informazio-tresna eta -zentro izan dadin lortu nahi da.



2. dokumentua

Gizalegez Akordioa

Gizalegez Akordioa

Gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromiso bat bizikidetzaren hezkuntzarako lau oinarriren inguruan

Gasteiz, 2013ko urriaren 1a

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia



GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromiso bat

Gizalegez Akordioa

Lau oinarri bizikidetza-hezkuntzarako

Bake-kulturaren sustapenak eta gatazka suntsitzaileen, giza eskubideen urraketen eta mota guztietako indarkeria-fenomenoen prebentzioak lotura zuzena dute bizikidetzaren urraketaren honako lau arrazoi hauei ematen zaien erantzunarekin: dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa eta sektakeria. Prebentziosko erantzun hori eratzearren, gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromiso bat garatzea erabaki dugu, lau hezkuntza-oinarri alternatiboren bitartez:

- Bizikidetza zera da, gure ikuspegia beti osatugabea dela onartzea. Mugen esperientzia hezigarriak dogmatismoari aurrea hartzen dio eta elkarrizketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu.
- Bizikidetza zera da, zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea. Balio positiboaren esperientzia hezigarriak fatalismoari aurrea hartzen dio eta aniztasuna sustatzen du.
- Bizikidetza zera da, egoera bakoitzean gure erantzukizun etikoa geure gain hartzea. Kontzientzia etikoaren esperientzia hezigarriak manikeismoari aurrea hartzen dio eta enpatia eta elkartasuna sustatzen ditu.
- Bizikidetza zera da, giza duintasunaren errespetuaren goi-mailako balioa ulertzea. Giza duintasunaren esperientzia hezigarriak indarkeriara jotzeari aurrea hartzen dio eta giza eskubideen errespetua sustatzen du.

Aurrera begira eta gure helburuak indarkeriaren prebentzioa, giza eskubideen babes unibertsala eta gizartea elkartzeko bizikidetzaren eta bakearen kultura direla kontuan izanik, gizartearen eta hezkuntzaren arloko zeharkako proiektu integral bat sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, betiere lau oinarri etiko horiei buruzko adostasuna abiapuntu hartuta. Hainbat eremutatik modu osagarrian sustatzea proposatzen dugu, modu sinple, sortzaile, libre eta askotarikoan.

Sinatzaileak

Iñaki Goirizelaia

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea
Rector de la Universidad del País Vasco

José María Guibert

Deustuko Unibertsitateko errektorea
Rector de la Universidad de Deusto

Iosu Zabala

Mondragon Unibertsitateko errektorea
Rector de la Universidad de Mondragón

Maite Alonso

Euskadiko Eskola Kontseiluko presidentea
Presidenta del Consejo Escolar de Euskadi

Ines Domínguez

SAREANeko lehendakaria
Euskal Eskola Publikoak Sarean

Josu Etxaburu

BIHEko lehendakria
Instituto Publikoetako zuzendari Elkarte

Mikel Ormazabal

Kristau Eskolako zuzendari nagusia
Director general de Kristau Eskola

Koldo Tellitu

Ikastolen Elkarteako lehendakaria
Presidente de Ikastolen Elkarte

José Echeverría

IZEAko presidentea
Irakaskuntza Zentru Autonomoen Elkarte
Presidente de AICEAsociación Independiente de Centros de Enseñanza

Mikel Gastañares

IKASGILTZAko lehendakaria
Irakaskuntza Eleanitzeko Kooperatiben Federazioa
Presidente de IKASGILTZA Federación de Cooperativas de Enseñanza Multilingüe

Miren Abasolo

EIBko lehendakaria
Eusko Ikastolen Batza
Presidenta de EIB

María José García Abasolo

Elizbarrutiko Ikastetxeak-eko administraria
Administradora de Centros Diocesanos de Bizkaia

Tomas Maguregi

Bizkaiko IKASLANen presidentea
Presidente de IKASLAN Bizkaia
IKASLANen izenean

Usoa Urbiet

EHIGE Gurasoen Elkarteko presidentea

Juan Carlos Jáuregui

UFEPAn presidentea
Euskadiko Irakaskuntza Librearen Ikasleen Guraso Elkarteen
Federakuntza
Presidente de UFEP
Unión de Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres de Alumnos de la Enseñanza libre de Euskadi

Aitor Mujika

BIDELAGUN Gurasoen Elkarteko presidentea
Presidente de la Federación de Padres BIDELAGUN

Pablo García de Vicuña

CC.OO - Irakaskuntzako idazkari nagusia
Secretario general de CC.OO.- Educación

Joseba Ander Muñoz

FETE-UGT-Euskadiko idazkari nagusia
Secretario general de FETE-UGT - Euskadi

Gorka Ruiz

Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen Foroako
lehendakaria
Presidente del Foro de Asociaciones de Educación en Derechos Humanos

Arantza Aurrekoetxea

Hezkuntza sailburuordea
Viceconsejera de Educación

Jonan Fernandez

Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkaritza nagusia
Secretaria General para la Paz y la Convivencia

Eranskina.

“Carltoneko akordioa”

Gizalegez Akordioak aurrekari bat dauka, Bizikidetzarako Hezkuntzaren Aldeko Konpromisoa, “Carltoneko akordioa” ere esaten zaiona, Bilbon sinatua, 2011ko abenduaren 30ean.

Ekitaldi honetara bildu garen euskal hezkuntza-komunitatearen erakunde eta eragileek adierazpen hau egin nahi dugu eta ondorengo jarduerak adostu, gure etorkizuna egituratuko duten belaunaldi berriak askatasunean eta giza eskubideen begirune zorrotzaren bidetik hezteko eginkizunari jarraipena emateko asmoz.

Hezkuntza, funtsean lehenik eta behin, baloreetan oinarritutako hezkuntza da: hiritar aske, kontziente eta kritikoen formazio integrala.

Euskal gizarteak garai berri baten irekiera alaitasunez eta itzaropenez bizi duen une erabakigarri honetan, hezkuntzak, familiarekin eta beste gizarte-eragileekin batera, areagotu egin behar du bere betebeharra, euskal belaunaldi berriak etorkizunerako elementu gisa era daitezen, gure herriarentzat bizikidetzako oso, integratzaile eta iraunkor baten aro berri bat bermatuz. Betiere gure orainaren eta iraganaren egiazko eza-gutza integral batean oinarriturik, oroimenik gabe ez baitago etorkizunik, ez askatasunik, ezta justiziarik ere.

Euskal gizarteak argia eta ilusioa galdegiten die hezkuntza-erakundeei, askatasun eta demokrazia osoko etorkizunari bidea zabal diezaiozen, justiziaren eta egiaren bidetik, non gatazkak eta desadostasunak bortizkeriarik gabe konponduko diren, elkarrizketan oinarriturik.

Kontziente gara gure dibertsitateaz, baina herri-ikuspegi konpartitu baten bilaketarekiko, demokraziarekiko eta, gure kasuan, hezkuntzarekiko konpromisoak batzen gaitu.

Kontziente gara hezkuntzari akordioak eta adostasunak ematen dioten balioaz, betiere zaindu eta gorde egin behar duguna.

Zerikusia duten erakundearen autonomia errespetatuta, askotariko ezaugarri eta helburuak dituzten hezkuntza-etapak aurrera atera behar baitituzte, etorkizuneko belaunaldien prestakuntza adoretzeko ohorea eta abantaila, baina, era berean, errorra eta erantzukizuna ditugu. Horregatik zera adosten dugu:

1. Giza eskubideen eta pertsonaren duintasunaren begirunean oinarritutako hezkuntza bultzatzea, edozein xede edo egokieraren gainetik.
2. Iraganean, orainaldian edo etorkizunean giza eskubideen urraketaren edozein justifikazioaren aurrean jarrerak kritikoa indartzea.
3. Eskubide horien haustearen ondoriozko biktimekiko enpatia bilatuko duten jarduerak sustatzea.
4. Benetako bizikidetzako demokratikoa sostengatuko duten balioak eta jarrerak indartzea, hezkuntza esparrutik hasita gizarte osoraino helduz.
5. Gure hezkuntza-komunitatean eta gure gizartean kultura demokratikoa finkatuko duten jarduerak bateratuak adostea..



3. dokumentua

Elkarrekin Programa

Elkarrekin Programa

Giza eskubideetan eta bakean, biktimekiko elkartasunean, bizikidetzan eta gatazken konponbide baketsuan hezteko proiektuetan prestakuntza-, dinamizazio- eta aholkularitza-ekimenak sustatzeko lankidetzak publiko-sozialeko esperientzia bat

Secretaría General para la Paz y la Convivencia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

1. Elkarrekin Programa

Hezkuntza-arloan Bake eta Bizikidetzaren Plana baliabidez hornitzeko tresna Elkarrekin Bonu Programa da. Programa horren bidez funts bat sortu da, eta haren bitartez gizarte-erakundeei ekarpen jakin bat egingo zaie ikastetxei eta haietako eragileei eskainitako prestakuntza-, dinamizazio- edo aholkularitza-zerbitzuetan emandako ordu justifikatu bakoitzeko. Programa antzera aplikatu da tokiko bizikidetzaren esparruan, Foru Aldundiekin eta Udalekin lankidetzan, eta baita herritarren partaidetzaren esparruan ere.

Funts honek babestuko dituen prestakuntza-, dinamizazio- edo aholkularitza-ekimen guztiak gai zehatzen ingurukoak izango dira, hala nola bake-kultura, giza eskubideak, elkartasuna biktimekin, adiskidetzea eta gatazken konponbidea; horien arteko lotura da denak ere Gizalegez Akordioak sustatzen dituela. Gogoratu eta nabarmendu behar da programa hau jada egiten ari denaren errefortzu osagarri bat dela. Programak ez du aurreko lana ordezkatzen; ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitzen da berme gehigarri gisa.

Hezkuntza formalaren esparruan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren arteko lankidetzaren bidez ezarriko da Elkarrekin Programa. 2014rako, 250.000 euroko funtsa izango du

2. Lankidetzaren helburuak

- Gure ikastetxeetan indarkeriaren kultura prebenitzeko eta bakearen eta giza eskubideen aldeko kultura sustatzeko hezkuntza-ekimenak ugaritzea.
- Irakasleek bakearen, giza eskubideen, bizikidetzaren, biktimekiko elkartasunaren eta gatazka kudeatzearen aldeko hezkuntzan duten prestakuntza indartzea.
- Ikasleen artean bizikidetzarako hezkuntza-arloko ekimenak sendotzeko eta familiek zein guraso-elkarteek prestakuntzan eta heziketan parte hartzeko ekimenak sustatzea.
- Hezkuntza-komunitateko eragileei aholkularitza eskaintzea bizikidetzarako hezkuntza-jarduerak eta -planak diseinatzeko.

3. Programaren gaiak, esparruak eta ekimenak

Jada aipatu denez, Elkarrekin Programa ez da hezkuntza-arlori soilik mugatzen. Atal honetan, programak hura diseinatu den hiru esku-hartze esparruetan duen hedadura azaltzen da. Hala, programa honen bidez euskal elkartearen sareko eragileei (bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza-arloko elkarte eta fundazioei) proposatzen zaie zehaztu dezatela beren ekarpena, hiru gai, hiru esparru eta hiru ekintza motaren inguruan egituratzen den esparru baten baitan beren jardueraren eremua definituz.

3.1. Gaiak

Gaiak hiru alorretan sailkatzen dira: oinarriak, tresnak eta konpromisoak (gizartea elkartzeko proiektu batean).

- Oinarriak: bakearen, giza eskubideen, indarkeria ezaren eta printzipio demokratikoen kultura.
- Tresnak: gatazken konponbidea, elkarrizketa, bizikidetza eta adiskidetzea.
- Konpromisoak: sentsibilitatea bidegabekeriaren aurrean, enpatia eta biktimekiko elkartasuna.

3.2. Esparruak

Euskal elkartearen sareko eragileek aurreko hiru gaietako edozein garatu ahal izango dute, bai bereizita bai batera, hiru esparru hauetako batean:

- Hezkuntza formala edo informala.
- Tokiko bizikidetza.
- Herritarren partaidetza.

3.3. Ekintzak

Gaiak eta esparruak mugatu ondoren, Elkarrekin Bonu Programaren barruan garatu ahal izango diren ekintza zehatzen hiru motak zehatzen dira jarraian:

- Prestakuntza eremu horietako edozeinetan.
- Jardueren zuzeneko dinamizazioa.
- Aholkularitza erakundeei jarduera-eremu zehatzetan.

Gaiak	Esparruak	Ekintzak
·Bakearen, giza eskubideen, errespetuaren eta indarkeria ezaren kultura.	Hezkuntza formala eta ez-formala	Prestakuntza
·Gatazken konponbidea, elkarrizketa, bizikidetza eta adiskidetzea.	Tokiko bizikidetza	Dinamizazioa
·Sentsibilitatea bidegabekeriaren aurrean, enpatia eta biktimekiko elkartasuna.	Herritarren partaidetza	Aholkularitza

4. Hezkuntza-curriculuma

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko urriaren 16ko 175/2007 Dekretuan, hezkuntzako eskumen orokor gisa, elkarrekin bizitzen ikastea aipatzen da, besteak beste, eta, berariaz, “harreman positiboak izaten eta, gatazka-egoeretan, elkarriketara eta negoziatziora jotzen ikastea. Halaber, gogoz eta demokratikoki parte hartzen ikastea, lankidetzan jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta aniztasuna errespetatzea, elkartasun-jarrerak erakutsiz”. Norbera izanda, pertsona gisa garatzen ikastea ere aipatzen du, “eta emozio negatiboak kontrolatzea eta nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioestea. Pertsona autonomoa izatea, norberak hartutako erabakien ardura hartzea, eta printzipio etikoei jarraitzea”.

Gainera, oinarrizko eskumenen artean, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna ezartzen du; izan ere, lehenago aipatu gaitasun orokorrekin zerikusi zuzena du. Eskumen honek ekarriko du norbera zein errealitate sozialetan bizi den ulertzea, bizikidetzari eta gatazkei balio eta praktika demokratikoetan oinarritutako judizio etikoa erabiliz aurre egitea, eta hiritartasuna gauzatzea, irizpide propioekin jardunez eta bakearen eta demokraziaren aldeko eraikuntzan parte hartuz, eta jarrera eraikitzailea, solidarioa eta arduratsua izanez hiritar-eskubide eta -betebeharrak betetzerakoan.

Azkenik, aipatu dekretuak, 3.6 artikuluan, honako hau jasotzen du: “Ikastetxeetako bizikidetzak egokia izan dadin, bake positiborako, giza eskubideetarako, justiziarako, elkartasunerako eta inklusiorako heziketa eman behar dute ikastetxeek. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatu egingo du ikastetxeko proiektu osoak egin daitezkeen, haien xedea bada bake-kultura bat sortzea eta oinarrizkat hartzen badituzte errespetuan, elkarriketan eta emozioen erregulazioan eta kontrolean ardaztutako jardunbideak. Proiektu horiek, halaber, oinarri izan behar dituzte gatazken trataera etikoa eta hezkuntza-komunitateko pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak”.

5. Programaren esparru bakoitzean funtsa eratzea

Elkarrekin Bonu Programa hiru esparrutan garatzen eta hedatzen da: Hezkuntza, tokiko bizikidetzak eta herritarren partaidetza. Egitura horretarako, hiru funts sortu behar dira erakunde desberdinekin. Funtsa urtero jasoko da Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan.

5.1. Hezkuntza formalean eta ez-formalean

Hezkuntza formalaren eta ez-formalaren esparruko Elkarrekin Bonu Programa Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren arteko Lankidetzak-akordio baten bidez eratuko da.

5.2. Tokiko bizikidetzak

Tokiko bizikidetzaren esparruko Elkarrekin Bonu Programa Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta programan sartu nahi duten foru-aldundien arteko Lankidetzak-hitzarmen baten bidez eratuko da, eta Eudelen laguntzarekin.

5.3. Herritarren partaidetza

Herritarren partaidetzaren esparruko Elkarrekin Bonu Programa, hasiera batean, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak bere gain hartuko du.

6. Elkarrekin sarea programan sartzea

Behin Elkarrekin Bonu Programa bere esparru guztietan formalki eratuta dagoenean, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak deialdi publiko bat egingo du, programan parte hartu nahi duten erakundeak zuzendua.

6.1. Programaren hartzaileak

Elkarrekin Bonu Programan parte hartu ahal izango dute, soilik, bakearen eta bizikidetzaren gaiekin lotura duten irabazi asmorik gabeko erakundeek, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteen edo fundazioen erregistroan inskribatuta badaude eta haien jarduera-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa bada. Hau da, programa egituratuta dagoen gai, esparru eta ekintzen inguruan lanean diharduten euskal elkarteen sareko eragileek parte hartu ahal izango dute.

Erakundeak elkartu ahal izango dira programaren barruan elkarrekin ekintzak egiteko. Bestalde, erakunde horiek beren jardueran laguntza-zerbitzuak emango dizkieten enpresa espezializatuak kontratatu ahal izango dituzte, baina azken horiek inoiz ezingo dute jardueraren titulartasuna hartu.

6.2. Programan sartzeko bidea

Gizarte-erakundeak Elkarrekin Bonu Programan sartuko dira erakunde bakoitzak Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarekin izenpetuko duen Sartzeko Protokolo bat sinatuta. Protokolo horrek programan parte hartzeko baldintzak zehaztuko ditu.

6.3. Programan parte hartzeko baldintzak

Sartzeko Protokoloan baldintza hauek ezartzen dira, gizarte-erakundeek Elkarrekin Bonu Programan parte hartu ahal izateko:

- Gizalegez Akordioaren parte izateko eta hura bultzatzeko gogoia agertzea.
- Planak jasotzen dituen gai, esparru eta ekintzen baitan, erakundeak zein jarduera-esparrutan parte hartuko duen zehaztea.
- Hautatutako esparruan edo esparruetan, Gizalegez Akordioa libreki eta era sortzailean garatzeko proiektu bat taxutzea.

Sartzeko Protokoloa sinatu aurretik, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak proiektu bakoitza bermatu beharko du, gutxienezko baldintza hauek aintzat hartuz:

- Proiektuaren eta haren ekintzen konpromiso sendoa giza eskubideekin, indarkeria ezarekin eta printzipio demokratikoekin.
- Erakunde bakoitzaren lan-proiektuan Gizalegez Akordioa sartzeko edo aipatzeko.
- Deialdi publikoetan ohikoak diren baldintzak betetzea, alderdi hauetan: hizkuntzak, genero-tratamendua eta zerga- eta lege-betebeharrak.

7. Programa abiarazteko prozedura

Protokoloa sinatzean, erakunde sinatzaile bakoitza Elkarrekin Bonu Programan sartzen da. Hortik aurrera, programa abiarazteko prozedura honela antolatzen dago.

7.1. Jarduera bakoitzerako proposamena zehaztea

Erakunde bakoitzak lan-proposamen bat zehaztu behar du egitea erabakitzen duen jarduera bakoitzerako. Horretarako, urrats hauek egin behar dira:

1. Hezkuntza-zerbitzuaren hartzaile batekin lan-proposamen bat hitzartu izatea. Esparruaren arabera, hartzaileak hauek izan daitezke:

- Hezkuntza formalean: ikastetxeak, guraso-elkarteak edo hezkuntza-arloarekin zuzenean lotutako bestelako erakundeak.
- Hezkuntza ez-formalean: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, eta hezkuntza ez-formalarekin edo etengabeko prestakuntzarekin lotutako bestelako entitate edo erakundeak.

-
- Tokiko bizikidetzan: udalak eta udal-eremuarekin zuzenean lotutako bestelako erakunde edo entitateak.
 - Herritarren partaidetzan: Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia eta herritarren partaidetza sustatzen ari diren bestelako erakundeak.
2. Proposamen Fitxa betetzea, datu hauekin:
- Lan-proposamenaren esparrua, gaia, ekintza eta helburuak.
 - Lan-proposamena garatzeko hitzartutako bezeroa. Harremanetarako pertsona, telefonoa eta posta elektronikoaren helbidea jarri behar dira.
 - Egin beharreko jardueraren deskribapen laburra.
 - Jardun horretan erabiliko den ordu-kopurua.
 - Aurrekontua, hartzaileak eskaintzen zaion zerbitzuagatik ordainduko duen kopurua zehaztuz.
 - Jarduteko egutegia.
 - Jardueraren garapenean esku hartzea nahi den pertsona-kopurua.

7.2. Programa abian jartzea

1. Proposamen Fitxa aurkeztea Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusian, jarduera garatu baino gutxienez 15 egun lehenago. Zazpi egunen buruan erakundeak Idazkaritzaren jakinarazpenik jasotzen ez badu, proposamena onartutzat joko da.
2. Aurreikusitako jarduera garatzea. Komunikazio-euskarriek ikusteko moduan eraman beharko dituzte Eusko Jaurlaritzaren eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren logotipoak.
3. Garatutako jardueraren Balantze Fitxa erregistratzea Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusian, datu hauekin:
 - Egindako jardueraren idatzizko memoria laburra.
 - Egindako jardueraren argazki-memoria.
 - Erabilitako orduen eta parte-hartzaileen kopurua.
 - Jasotako hezkuntza-zerbitzua egiaztatzen duen hartzailearen ziurtagiria.
4. Behin memoria baliozkotu ondoren, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak dagozkion bonuak ordainduko ditu.
5. Jarduera amaitu ondoren, hezkuntza-zerbitzuaren hartzaileak esperientziaren ebaluazioa helaraziko du Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusira.

8. Elkarrekin Programan parte hartzeko mugak

Elkarrekin Bonu Programa orain arte azaldutako baldintzen pean garatuko da. Horrez gain, hezkuntza-arloan muga hauek aintzat hartuko dira:

1. Erakunde berak ezingo du bonutan metatu, proposatutako esparru guztiak kontuan hartuz, deialdian ezarritako muga gisa ezarritako guztizkoa baino kopuru handiagoa.
2. Hezkuntza-arloan eta hartzaile berarentzako jardueretan, ezingo da bonutan gainditu deialdian ezarritako den muga.
3. Deialdian zehaztuko da hezkuntza-zerbitzuaren hartzaileek zer kopuru gehitu beharko dioten Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen bonuari.
4. Prestakuntza-jardueretan, ez dira onartuko gutxienez 15 pertsonak parte hartzen ez duten lan-proposamenak.
5. Elkarrekin Bonu Programa lankidetzara publiko-sozialeko proiektu berritzailea da. 2014. urteari begira, esperientzia pilotu gisa planteatu da. 2014ko amaieran, proiektuaren garapenean ebaluazioa egingo da, eta, haren arabera, hurrengo ekitaldietarako egokitu eta hobetu egingo da.



4. dokumentua

Adi-adian Hezkuntza-modulua

Adi-adian hezkuntza-modulua

Giza duintasunari, bizikidetzari eta
enpatiari buruzko
ikaskuntzak, biktimen testigantzak
entzuteko esperientziaren bidez

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Aurkezpena

Duela hainbat urtez, bakerako hezkuntza, indarkeriaren injustizia, biktimenganako elkartasuna eta beren testigantzen balio pedagogikoa nola landu behar diren kezka planteatzen zaigu euskal hezkuntza-sisteman. 2005-2009 legegintzaldian, eta Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren barruan, “Bakerako Urratsak” eta “Marka uzten diguten istorioak” unitate didaktikoak egin ziren, eta 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan esperientzia pilotuak mamitu ziren. Horietan, biktimen testigantzekin lan egin zen, antzerki-foruma tresnaren bidez.

2010ean, hezkuntza-curriculumaldatzeko dekretuak biktimenganako enpatia lantzearen garrantzia txertatu zuen. Urte bereko ekainean, Eusko Jaurlaritzak aurreko planaren birformulazioa onartu zuen, eta testuinguru horretan, Biktima Hezitzaileak programa abian jarri zuen 2011n. Programa horrek ETaren eta beste erakunde batzuen (BVE, GAL...) indarkeriaren zenbait biktima aukeratu eta trebatu zituen DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasgeletan beren esperientziaren berri eman zezaten, hezkuntza-helburu bati jarraituta.

Legegintzaldi honetan, 2013ko bigarren hiruhilekoan zehar, zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriatzeko Zuzendaritzak eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak 2011 eta 2013 artean programak izandako garapena aztertu zuten. Ebaluazio horren bidez zenbait gabezia identifikatu ziren, ekimenaren definizioari, ikastetxe eta irakasleekiko elkarreraginari, eta, bereziki, haren ezarpenari loturik.

Ebaluazio-prozesu honen asmoa ez da hutsune horietan sakontzea. Lehenik eta behin, alderdi positiboak espresuki nabarmendu nahi ditugu, jarraitutasuna emateko, eta, bigarrenik, hautemandako urritasunak modu eraikitzailean baliatu nahi ditugu, hobekuntza-esparruak definitzeko. Oinarri horiekin, eta zentroek berek egindako ebaluazioaren arabera, hiru dira jarraipena eman behar zaien alderdi positibo nagusiak:

- Programaren oinarritzko ideia, biktimen testigantzari hezkuntza-balio esanguratsua ematen diona.
- Mota ezberdineko indarkeriaren biktimen testigantzak entzuteko aukera.

- Parte hartzen duten biktimekin egiten den lanaren prestaketa, eta euren bizikidetzaren mezuaren edukia, testigantzen ardatz nagusia dena.

Hobekuntza-esparruak, aldi berean jarduketara-ildoak definitzen dituztenak, honako puntu hauetan laburbiltzen dira:

- Hezkuntza-komunitatearekiko harremana eta lankidetzaren hobetzea ekimena diseinatzean eta bideratzean.

- Ikastetxeei eta irakasleei hezkuntzako lan-proposamen hau hobeto aurkeztea eta horren inguruko informazio eta trebakuntza hobea ematea.

- Ekimenaren ezarpena eta garrantzia handitzea eta hura hobeto praktikan jartzea ikastetxeetan.

- Ekimenari ikuspegi didaktiko interaktiboago eta sortzaileagoa emateko aukera aztertzea, eta pedagogiaren aldetik etekin handiagoa ateratzea.

Hori guztia fase berri baten abiapuntua da programa honen garapenean, hemendik aurrera izen hau izango duena: “Adi-adian Hezkuntza-modulua. Giza duintasunari, bizikidetzari eta enpatiari buruzko ikasgintzak, biktimen testigantzak entzuteko esperientziaren bidez”. Lehenengo urratsa da programa zertan datzan eta norantz bideratuko den zehatz-mehatz azaltzea. Horretarako, dokumentu hau hezkuntza-komunitatearekin partekatzen dugu, haien ekarpenak eta iradokizunak jasotze aldera.

1. Oinarriak

Tankera honetako hezkuntza-modulu bat sustatzeko edo berrindartzeko unean, ez da komeni haren egokitasuna bermatzen duten arrazoiak hain agerikoak direla ziurtzat jotzea. Egokia dirudi haren zergatiaren inguruko gogoeta sakona egitea alde aurretik. Alde horretatik, oinarrizko bi arrazoi nagusi nabarmendu behar dira: bata hezkuntzarekin lotutakoa, eta bestea komunitatearekin.

1.1. Hezkuntzarekin lotutako arrazoa

Indarkeria, terrorismoa eta giza eskubideen urraketak ez dira bidegabekeriak per se bakar-bakarrik; bidegabekeriak dira pertsona jakin batzuei erabateko sufrimendua eragiten dietelako, funtsean. Hezkuntza-balio oso garrantzitsua du lehen eskutik ezagutzeak edo entzuteak sufrimendu hori bizi eta gorrotoaren ordez bizikidetzeta-diskurtso eraikitzaileak defendatzen dituztenen testigantza.

Testigantza horrek indarkeriaren errealitate-printzipioaren aurrean kokatzen gaitu: eragiten duen giza sufrimendua. Testigantza horrek giza hezkuntzari, hezkuntza pertsonalari eta prosozialari errefortzu pedagogikoa emateko aukera ematen du. Benetako esperientzia baten bidez, enpatiaren, bizikidetzaren, giza duintasunaren eta giza eskubideen aldeko hezkuntzan eta injustizien aurreko jokaera kritikorako hezkuntzan sakontzen dute ikasleek.

1.2. Komunitatearekin lotutako arrazoa

Eskolak ikaskuntza-komunitate bat osatzen du bere ingurunearekin, bere auzoarekin, bere herriarekin, bere herrialdearekin, bere kontinentearekin eta bere planetarekin. Gure inguruan gertatzen dena ezinbesteko ikasgaia da hezkuntza-prozesuan. ETaren indarkeria amaitu delarik, garrantzi handiko zerbait –historikoa– gertatzen ari da gure herrian. Hainbat hamarkadaren ostean, iragana modu kritikoa oroitze eta bizikidetzeta normalizatua eta baketsua eraikitzeke garaia heldu zaigu.

Eskola bere gizartearen eta gizarte horren aurrerabiderako prozesuaren parte da. Elkarlotze horretan, haxe da babestu behar dugun printzipio gidaria: erdigunean ikaslea dago, eta lehentasuna hezkuntza-helburuari eman behar zaio, beste edozein kausaren aurrean. Oinarri hori finkatuta, hezkuntza-arloa gertu dago bere gizartearekin partekatzeke indarkeria eta suminezko bizipen traumatiko bat gainditzeko beharrezkoa den ikaskuntza-prozesu kolektiboa. Elkarrekin ikasten dugu, pertsona zein gizarte gisa hobetzeko.

2. Helburuak

Modulu honen azken xedea da norberaren hezkuntza-prozesua hobetzen eta sendotzen laguntzea, geure errealitatearen testuinguruan, gizarte eta mundu hobe baten alde eginez. Zeregin orokor horretatik abiatuta, hona hemen helburuak:

- **Esperientzia.** Bizipen hezigarri bat sustatzea, indarkeriak eragiten duen benetako sufrimenduaren bidegabekeria ikusi eta sentitzeko aukera emango duena, ondoren horretatik ikasteko.
- **Enpatia.** Bidegabekeriak sufritzen eta jasaten dituzten pertsonetikiko enpatia sentitzeko gaitasuna garatzea ikasleengan.
- **Giza duintasuna.** Giza duintasuna goi-mailako balio gisa ulertzea, bizitzea eta horretaz jabetzea.
- **Giza eskubideak.** Giza eskubideen edukia ezagutzea eta ikastea haien esanahi sakona ulertzeko, bizitza pertsonal eta sozialari begira.
- **Bizikidetzeta.** Elkarrekin hobeto bizitzen ikastea errespetuan oinarrituta, eta ikaskuntza hori eguneroko bizitzara eramatea.

3. Hezkuntza-curriculuma

Elkarrekin bizitzera deitzen gaituzten biktimen testigantza entzutea garrantzi hezigarri eta prosozial handiko balioa da. Biktimen testigantzak hezkuntza inklusibo baten barruan landu nahi duen hezkuntza-modulu batek giza duintasuna izan behar du abiapuntu eta oinarri. Hori da Adi-adian moduluaen zimendua. Modulu honen garapena Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma ezartzeko 2010eko apirilaren 20ko Dekretuan ezarritako helburuen, edukien eta ebaluazio-irizpideen mende egongo da ezinbestean. Biktimenganako elkartasunari dagokionez, hauxe ezartzen du:

70. artikulua (Sarrera): “Giza eskubideak lantzeko orduan zorrotz erabili behar dira kontzeptuak, eta, gainera, enpatia bilatu behar da giza eskubideak zapaldu zaizkien pertsonekin. Horretarako, ezagutu beharrekoak dira haien lekukotzak...”.

72. artikulua (Helburua): “Giza eskubideak zapaltzen diren egoerak identifikatzea, egiturazko indarkeria-egoerek (gerrak, pobrezia, muturreko desberdintasuna eta abar), indarkeria terroristak, genero-indarkeriak, kidekoen arteko indarkeriak eta abarrek sortutakoak, eta bakea, askatasuna, segurtasuna eta zuzentasuna lortzera bideratutako jarduerak balioestea mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa eskuratzeko bide gisa”.

73. artikulua, 4. multzoa (Edukiak) “Giza eskubideen zapalketa-egoerak zurrizko ahalegin oro baztertzea”, bai eta “gure gizartean biktimei haien izaera aitortzea, eta egoerei aurre egiteko eta haiek gainditzeko eredutzat balioestea”.

73. artikulua, 8. multzoa (Ebaluazio-irizpideak) “Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren oinarrizko printzipioak eta balioak eta haien bilakaera ezagutzea, eskubide-urraketa gertatzen den egoerak hautematea, eskubideok defendatzeko ekintzak proposatzea eta urraketa horien biktimenganako enpatia adieraztea”. “Ea aintzat hartzen dituen gerra-gatazketako biktimak, terrorismoaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak, eskola edo laneko jazarpenaren biktimak edo beste mota bateko indarkeria-ekintzen biktimak, eta ea haiekiko enpatia eta hurbiltasuna erakusten duen”.

Esparru horrek definitzen du azkenean ikastetxeentzat aginduzkoa dena. Arau-erreferentzia hori aintzat hartzeak hezkuntza-modulu hau bizikidetzarako hezkuntzako zeharkako proiektu batean txertatzeko aukera ematen digu. Proiektuak elkarrekin lotutako hainbat ildo lantzen ditu; haietako bat da terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen biktimenganako elkartasuna.

4. Orientabide pedagogikoko irizpideak

Hezkuntza-modulu honen proposamena, beraz, azpimarratu berri ditugun lau erreferentziak barne hartzen dituen esparru orokorraren barruan kokatzen da. Oinarri horren inguruan, hona hemen Adi-adian hezkuntza-modulua garatzeko orduan baliaigarriak izan daitezkeen orientabide pedagogikoko zenbait irizpide:

4.1. Konpromisoaren pedagogia

Hezkuntza-modulu honek iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko diskurtso konprometitua du euskarri. Iraganaren tratamenduak biktimek jasandako injustiziaz kontziente izatea bilatzen du. Orainak enpatiaren eta elkartasunaren esperientzia bilatzen du. Etorkizuna bizikidetzarako eta indarkeria prebenitzeko erreferentziatzko esparru etikora bideratzen da modu eraikitzailean, eta esparru hori giza duintasunean eta giza eskubideen errespetuan oinarrituta dago.

4.2. Unibertsaltasunaren pedagogia

Adi-adian hezkuntza-moduluak gizatasunaren eta unibertsaltasunaren pedagogia sustatzen du. Lantzen duen enpatiaren eta elkartasunaren kontzeptua biktima eta giza eskubideen urraketa guztietara zabaltzen da. Pedagogia hori bateraezina da terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketak legezkatat jotzearekin edo minimizatzearekin. Era berean, ez du inolako alderdikeriarik, sektakeriarik, salbuespenik edo ahazterik onartzen giza eskubideen eta biktimenganako elkartasunaren unibertsaltasunari dagokionez.

4.3. Bizikidetzaren pedagogia

Azken batean, ekimen honek hezkuntza-proiektuaren ardatz nagusietako bat indartzen du: bizikidetzarako hezkuntza. Horregatik, lan-proposamen honi modulu deritza, atal bat delako, bakearekin, giza eskubideekin eta justiziarekin engaiatutako bizikidetzarako hezkuntza-proiektu orokor batean txertatu beharrekoa. Bizikidetzaren bidezko eta adostu baterako hezteak da balio gorena. Hezkuntza-modulu honen iparra elkarrekin bizitzen ikastea da. Gako nagusi eta lehentasunezkoa bizikidetzaren da, eta bi ildotan maitatzen da: indarkeria prebenitzea eta bizikidetzaren adostea.

4.4. Enpatiaren pedagogia

Hezkuntza-modulu honek ezaugarri berezi bat du: sufrimenduari aurpegia jartzen dio. Ez da kontzeptu jakin batzuen abstrakzio teorikoaren atzean gordetzen. Esperientzia eta benetako bizipena jaso nahi ditu, sufrimendua jasan duen eta egoera horri aurre egin dion pertsona baten testigantza entzutearen bidez. Sufrimenduaren errealitatea lantzen du biktimismoaren arriskuan jausi gabe. Biktimekiko elkartasunaren eta enpatiaren esperientzia sustatzen du. Alde horretatik, ez da neutrala. Adi-adian du izena, entzuteko esperientzia arretatsua, sakona eta enpatikoa izatea lortu nahi duelako.

5. Lan-proposamena

Hamarkadetan zehar, indarkeriak eta giza eskubideen urraketek errealitate sozialki traumatikoa, eta, batik bat, sufrimendu bidegabea eta muturrekoa eragin diete milaka pertsonari; bidegabekeria horiek lehenengo pertsonan zein familiaren barruan bizi izan dituzte. Bizipen horren ondoren, gorrotoaren ordean bizikidetzarako deia egiten duten pertsona horietako batzuen gogoetak zuzeneko moduan entzuteak balio handia du hezkuntzaren nahiz pedagogiaren ikuspegitik. Ikaskuntza, kasu horretan, lehenengo pertsonan bizitako entzute-esperientziatik dator, eta ez irakatsitako lezio batetik.

Adi-adian moduluen proposamena da, bere xumean, DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleei pertsona horien zuzeneko testigantza gerturatzeko; tutoretzak nahiz etika, filosofia edo historiako ikasgaiak baliatu daitezke horretarako, edota zeharkako proiektuetan txertatu. Hezkuntza-esperientzia hori gauzatzeko, formatu hauetakoren bat edo batzuk erabil daitezke:

- Ikus-entzunezko testigantza.
- Testigantza idatzia.
- Antzerkiaren bidezko testigantza.
- Biktima bat edo gehiagoren testigantza, zuzena eta aurrez aurrekoa.

Irakasleek eta ikasle batzuek formatu horiek guztiak aztertu dituzte, eta oso modu positiboan ebaluatu dituzte. Ez dira bateraezinak; aitzitik, haietako batzuk batera erabil litezke pixkanaka edo zenbait fasetan gara litekeen lan batean. Edozein kasutan, oso gomendagarria da zuzeneko testigantzaren esperientzia baliatzea.

6. Baliabide erabilgarriak

Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak ikastetxei dei egiten diete hezkuntza-modulu hau gara dezaten, 2013-2016rako Bake eta Bizikidetzaren Planaren garapenaren barruan. Garapen hori errazte aldera, baliabide hauek jarri dira haien eskura:

6.1. Koordinazioa, informazioa eta prestakuntza

Eusko Jaurlaritzak figura bat sortu du Bake eta Bizikidetzaren Plana hezkuntza-arloan koordinatzeko; zehazki, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren, Berritzeguneen, hezkuntza-eragileen eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren artean koordinazio-lanak egiteko. Adi-adian hezkuntza-moduluari dagokionez, zeregin hauek ditu figura horrek:

-
- Informazioa. Modulu honi buruzko informazio-hitzaldiak eskaintzea ikastetxeei.
 - Prestakuntza. Modulua aplikatzeko trebakuntza-ikastaroak eskaintzea.
 - Koordinazioa. Adi-adian modulua praktikan jartzeko lana koordinatzea, hala eskatzen duten ikastetxeetan.

6.2. Tresna didaktikoak

Hezkuntza-modulua aurrera eramateko, une honetan tresna didaktiko hauek daude eskuragarri:

- Zuzeneko testigantza. Biktima talde bat ikasgeletan bere testigantzaren berri emateko trebatuta eta prest dago. Aurrez egingo diren informazio-hitzaldietan eta trebakuntza-ikastaroetan esperientzia hau garatzeko gida didaktiko simple bat banatuko da, testigantza entzun aurretik, bitartean eta ostean eta lantzeko jarduera-iradokizunekin.
- Ikus-entzunezko testigantza. Ikastetxeek testigantza grabatuak dituzte eskuragarri. Gehiago prestatuko ditugu. Horiek ere berriazko gida didaktiko bat izango dute.
- Testigantza idatzia. Aukera hori lantzen hasteko zenbait unitate didaktiko daude. Horiek ere gida bat izango dute laguntza moduan.
- Antzerkiaren bidezko testigantza. Biktimen testigantzarekin egingo den hezkuntza-lana antzerki-forumaren esperientziaren bidez aurkeztu daiteke.

6.3. Baliabide ekonomikoak

Hezkuntza-modulu hau ikastetxeetan ezar dadin sustatu eta errazteko, hura ezarri eta aplikatzeko behar den prestakuntza Elkarrekin Bonu Programaren bidez egiteko aukera emango da. Eusko Jaurlaritzak funts bat jarriko du 2014ko aurrekontuan, bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzaren arloan prestakuntza-, dinamizazio- eta aholkularitza-ekintzak bultzatzeko. Ekintzotan euskal elkarten sareko ikastetxeek eta erakundeek parte hartuko dute.



5. dokumentua

Adi-adian hezkuntza-moduluaren irakasleentzako gidaliburu didaktikoa



Irakasleentzako gidaliburu didaktikoa

Adi-adian

Hezkuntza-modulua

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Hasierako oharrak

1. Gidaliburu didaktiko hau orientaziozkoa da. Ez da irakasleen ekimenetarako lekurik uzten ez duen jarraibide-liburu itxia. Alderantziz; erreferentzia irekiak besterik ez ditu eskaintzen, irakasleek autonomiaz eta sormenaz moldatu eta garatzeko.
2. Adi-adian modulu bat da, hau da, hezkuntza-lan zabalago eta globalago baten parte da. Elkarbizitzarako hezkuntzan ikastetxe bakoitzak egin duen lanean edo egin beharreko lanean txertatzen da. Hala, azken urteotan irakasleek gai honen inguruan egindako ahaleginetatik abiatzen da.
3. **Adi-adian hezkuntza-modulua** esperientzian eta heziketan barrena bidaia egiteko aukera bat da, eta bost gertoki ditu: giza eskubideak, biktimak, gertatutakoa kontatzea, enpatia eta bizikidetzak. Funtsezko bost kontzeptu horiek terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketan biktimizekiko solidaritatearen inguruan Oinarriko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duena garatzen dute.

Ibilbide bat eta **bost** geltoki

Abiapuntua: film bat

Lehenengo, ikusi; gero, pertsonalizatu; eta hirugarrenez, partekatu. Hori da jarraitzen dugun estrategia didaktikoa. Lehenik eta behin, ikusi nahi dugu. Ibilbidea hasi aurretik, landu nahi dugun gaira hurbiltzen saiatuko gara, baina gure errealitatetik kanpo. Film on batek lagun gaitzake. Lehenengo, ikusleak izango gara eta, gero, gure testu-ingurura hurbilduko gara.

“Pena de muerte”, “Cinco minutos de gloria” eta “American History X” dira, besteak beste, indarkeriaren, sufri-menduaren, biktimen eta abarren gaiak hainbat ikuspegiatik jorratzen dituzten pelikula batzuk. Halaber, giza eskubideak lantzeko gomendatzen den beste edozein film balia dezakegu. Gidaliburu honetan, “Pena de muerte” filma erabiliko dugu. Oso osatua da, gaia ikuspegi ia guztietatik lantzen baitu.

·Lehenik eta behin, **ikusi**. Besterik gabe, filma ikusiko dugu.

·Bigarrenez, **pertsonalizatu**. Ikasleei bakarkako lana proposatuko diegu, hausnarketa bultzatzen duten galderen bidez: Nola sentiarazi zaitu filmak? Saiatu pertsonaia guztien paperean jartzen.

·Hirugarrenez, **partekatu**. Ikusi berri dugun pelikula-tik hiru ondorio ateratzen saiatuko gara talde txikietan. Azkenik, ondorioak partekatuko ditugu eta filmari buruzko eztabaida irekia egingo dugu.

1

Lehen geltokia. Giza eskubideak

Geltoki honen helburua da ikasleek giza eskubideak zer diren eta zer esan nahi duten ezagutzea eta ulertzea. Giza eskubideei buruzko edozein unitate didaktiko balia dezakegu edo, bestela, aurretik eginiko lanak erreferentzia gisa hartu. Hona hemen lan-programa sinple bat:

Gaian sakondu aurretik eta ikusitako filma oinarri hartuta, zenbait galdera egin ditzakegu: Uste al duzue pertsona guztiek eskubide berak dituztela? Zer dira giza eskubideak? Zentzua dutela uste al duzue? Hurbilketa horren ostean, zeregin hauek planteatu ditzakegu:

- **Lehenengo**, ikasleei Giza Eskubideen Deklarazioaren hitzaurrea eta 30 artikulua banatuko dizkiegu. Ikasle bakoitzak besteei artikulua bana aurkezteko eskatuko dugu. Horrela, eskubide bakoitzak zer esan nahi duen eta noiz betetzen den eta noiz ez aztertuko dugu banan-banan.
- **Bigarrenez**, talde txikietan, azken egunotako albisteak aztertuko ditugu, giza eskubideak urratzen diren egoerak antzematen saiatzeko. Talde bakoitza hiru adibide aurkitzen saiatuko da, eta urraketa horien kaltetuak, hau da, biktimak nor diren antzeman beharko du.
- **Talde handian** talde txikietan hitz egindakoaren inguruko ondorioak partekatuko ditugu. Ostean, eztabaida irekiko dugu José Saramago idazle, Literatura Nobel Saria eta giza eskubideen aldeko borrokalariaren esaldi batekin. Behin, gazte batzuek galdetu zioten zein zen mundu hobe baten alde borroka egiteko beren tokia, hark erantzun zuen “XXI. mendeko gazteen guda giza eskubideak eskuratzea izan behar zela”. Zuen ustez, zer esan nahi du mezu horrek?
- **Ebaluatzeko irizpideak:** Diskriminaziozko, marjinaziozko eta bidegabekeriako egoerak eta faktoreak antzematea eta arbuiztea.

2

Bigarren geltokia. Biktimak

Bigarren geltoki honetan, helburua da biktima izateak zer esan nahi duen ulertzea, lehenik eta behin askotariko egoeratan eta, gero, gure errealitatean. Jarduerak aurreko geldialdia hartuko du erreferentzia gisa, bai filmari dagokionez bai giza eskubideei dagokienez. Heziketa-modulu honen proposamen nagusia gurean hartzeko prestatuko gara: biktima baten istorioa zuzenean entzutea.

Ezagutzen dugun eta biktimen errealitatera hurbiltzen laguntzen duen edozein material didaktiko erabil dezakegu. Honako eskema hau edo antzekoa erabil dezakegu:

- Bakarka erantzuteko galderak: Zer datorkizu burura biktima hitza entzutean? Filmeko biktimak gogoratzten al dituzu? Zer da, zure ustez, giza eskubideen biktima bat? Nor dira biktimak mundu honetan? Zure inguruan biktimatzat jo daitekeen inor ezagutzen al duzu?

- Talde txikietan hausnarketa egitea proposatuko dugu. Gure herrian terrorismo-, indarkeria- eta giza eskubideen urraketa-arazo larria egon da azken hamarkadetan. Zer deritzozu gertatu denari? Zer dakizu? Zuen ustez, zenbat biktima egon dira? Zuen iritziz, nortzuk izan dira biktimak? Helburua ez da akordioetara heltzea, hausnarketa egitea baizik.

- Talde handian, talde txikietan hitz egindakoa partekatzen saiatuko gara. Eztabaidan, biktimen datu objektiboak eman ditzakegu, ikasleen iritzia benetan gertatutakoarekin alderatzeko. Amaitzean, ikasleei gogoratuko diegu laster biktima bat gertatutakoa kontatzen entzun ahal izango dugula.

- **Ebaluatzeko irizpideak:**
Biktimak antzematea hainbat egoeratan.

3

Bide erdiko geltokia. Gertatutakoa kontatzea

Adi-adian esamoldeak oso arreta handiz entzutea esan nahi du. Biktima bati gertatutakoa entzungo dugu. Oso garrantzitsua da entzuteko eta bere azalean jartzeko ahalegina egitea, aurreiritzirik gabe, mugarik gabe. Bere istorioa eta bere esperientzia ulertzen eta horietatik ikasten saiatuko gara. Pertsona hori aurrean badugu, zer galdera egin nahi diogun pentsatu behar dugu.

Gertatutakoa entzun ostean, bakarkako hausnarketa proposa dezakegu, galdera hauen bidez: Zer sentitu duzu gertatutakoa entzutean? Uste al duzu hilketari hori justifika daitekeela? Indarkeria bidezko hilketaren bat

justifika daitekeela uste al duzu? Zer sentimendu eragiten dizu norbait galtzearen minak? Zure iritziz, erraza al da itzaropena eta konfiantza berreskuratzea? Zer iruditzen zaizu biktima horrek bere bizitza berregiteko egingandako bidea? Azkenik, saiatu pentsatzen zer sentituko zenukeen maite duzun norbait antzeko egoera batean hilko balitz. Zer egingo zenuke?

Ebaluatzeko irizpideak:

Modu aktiboan entzutea eta biktimekiko sentsibiltate solidarioa piztea.

4

Laugarren geltokia. Enpatia

Giza eskubideen eta biktimen inguruan hausnarketa egin dugu. Gainera, biktima bati gertatutakoa entzun dugu. Orain, zuzenean eragiten digun zerbait landuko dugu: enpatia.

Zer sentitzen dugu errealitate horren aurrean eta zertara garamatza? Lehen bezala, kasu honetan ere, irakasleak sufrimenduarekiko edo bidegabekeriarekiko enpatia lantzeko ezagutzen duen edozein baliabide aukera dezake. Jarraian, helburu hori betetzen duten zenbait jarraibide sinple eskaintzen ditugu.

- Bakarkako hausnarketarekin hasiko gara; aurreko saioan entzun dugunaren inguruan hausnartu egingo dugu. Egin ditzakegun galdera batzuk: Biktima bati gertatutakoa entzuteak uste zenuenaren beste aldera eraman al zaitu? Zer dakizu orain lehen ez zenekiena? Zer sentitzen duzu pertsona horren istorioa gogoratzean? Idatzi zerbait pertsona horri. Idatzi zuretzat, baina berari idatziko bazenio bezala.

- Talde txikietan lan egitea proposatuko dugu. Talde bakoitzak enpatia hitza zer esan nahi duen bilatu behar du interneten edo hiztegi batean, eta esanahia analizatu. Biktimak kontatutakoa entzutean sentitu dutena definizio horrekin bat datorren azter dezakete. Enpatia zer kasutan behar den pentsa dezakete.
 - Talde handian, talde txikietan hitz egindakoa partekatuko dugu eta ondorioak aterako ditugu enpatiaren esanahi praktikoari buruz. Horretarako, bi galdera baliatuko ditugu: Zer konpromisora garamatza enpatiak? Zer solidaritate-ekintzara gonbidatzen gaitu? Bukatzeko, azken galdera zabalik utz dezakegu: Benetako sufrimendu baten lekukotza ezagutzea bizikidetzara hobetzeko balio duela uste al duzue?
- Ebaluatzeko irizpideak:** Enpatia hitzaren esanahia ezagutzea eta praktikan jartzea.

5

Bosgarren geltokia. Bizikidetza

Ibilbidea azken geltokira heldu da. Biktima baten lekukotza entzun dugu. Hark bidegabeko sufrimendu handia pairatu du eta, hala eta guztiz ere, zeharo defendatzen du gorrotoaren aurkako eta bizikidetzaren aldeko diskurtsoa. Geltoki honen helburua da mezuaren indarra barneratzeko une batez gelditzea.

·Ikasleei eskatuko diegu biktimari gertatutakoa entzutean gehien harritu dituen hitzan, ideian edo esperientzian pentsatzeko. Adierazgarri egin zaigun hitz bakoitza post-it batean idatziko dugu eta arbelean edo horma-irudi batean itsatsiko dugu. Ostean, hitzak gaika multzokatuko ditugu, hiru edo lau talde egiteko, esaterako: giza eskubideak, sufrimendua, bizikidetza, bidegabekeria, enpatia...

·Talde txikietan, lan simple bat egingo dugu: bizikidetza eta errespetua bereizirik definitzen saiatuko

gara. Ostean, biak batuta zer esan nahi duten aztertuko dugu.

·Talde handian talde txikietan ateratako ondorioak partekatuko ditugu. Azkenik, eztabaida bat egingo dugu, post-it-etan idatzitako hitz multzoen loturari buruz eta bizikidetza eta errespetua hitzen esanahiari buruz.

·Ebaluatzeko irizpideak:

Bakoitzaren eta besteen desberdintasunak eta ezaugarriak errespetatzea.

Helmuga. Ondorio bat: Gizalegez

Bukatzeko, norberarentzat zein taldeka baliagarriak diren ondorioak aterako ditugu. Hezkuntza-komunitateko eragileek Gizalegez akordioa onartu dute. Helmuga honetan, akordioaren lau ardatz nagusiak azal diezazkiekegu ikasleei, guk egindako ibilbidearekin zer harreman duten ikusteko.

·Ikasleak lau taldetan banatuko ditugu. Talde bakoitzari Gizalegez akordioaren lau ardatzetako bat emango diogu. Hala, talde bakoitza eduki hauen esanahiaren eta ezarpenaren inguruan hausnarketa egingo du:

A taldea: "Bizikidetzak da arrazoi osoa ez dugula onartzea".

B taldea: "Bizikidetzak da egoera guztietan alde ona baloratzen ikastea".

C taldea: "Bizikidetzak da gure ardura etikoa onartzea egoera bakoitzean".

D taldea: "Bizikidetzak da giza eskubideak errespetatzearen balio funtsezkoa ulertzea".

·Ondoren, ikasleak beste lau taldetan banatuko ditugu. Talde bakoitzean, aurreko A, B, C eta D taldeetako kideak jarriko ditugu. Horrela, talde berrietako kide bakoitzak aurreko taldean egokitu zaion esaldiaren esanahia azaldu ahal izango du.

·Talde handian, ondorioak ateratzen saiatuko gara bizikidetzak hobetzeko eta mundu bidezkoago, giza eskubideekiko errespetagarriago eta horien urraketentatik biktimitateko solidarioago bat eskuratzeko guk har ditzakegun konpromisoen inguruan.

·Amaitzeko, erabilitako baliabideek helburuetara zelan egokitzen diren, piztutako interesa, ikasleen parte-hartzea eta irakaslearen papera ebaluatuko ditugu oso modu errazean.

Bibliografia. Beste baliabide didaktiko batzuk.

1. GELTOKIA: GIZA ESKUBIDEAK	
Bibliografia	Beste baliabide didaktiko batzuk
<p>·Jares, X. R.: <i>Educación y Derechos Humanos</i>. Cuadernos Bakeaz, nº 29.</p> <p>·Hainbat: <i>Compass. Gazteak Giza Eskubideetan Hezteko eskuliburua</i>. Eusko Jaurlaritza. 2010.</p> <p>·Tuvilla, J.: <i>Educación en Derechos Humanos. Hacia una perspectiva global</i>. Arg. Desclée de Brouwer. Bilbao. 1998.</p>	<p>·Eusko Jaurlaritza: <i>Begiradak-Miradas. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena. 2008</i>. (CDa).</p> <p>·Azkarate, G., Errazti, L., Mena, M.: <i>Giza Eskubideen Hezkuntzari buruzko baliabideak</i>. Ararteko. 2000.</p> <p>·Hainbat: <i>Educar en y para los derechos humanos. Dinámicas y actividades</i>. Catarata. 1996.</p> <p>·Tuvilla, J.: <i>Derechos Humanos</i>. Cuaderno de actividades para educar en la Cultura de Paz. ⁽¹⁾</p> <p>·<i>Guía de recursos educativos sobre Derechos Humanos</i>. ⁽²⁾</p> <p>·www.propuestaizan.org. Filma: <i>El hombre elefante</i>.</p>
2. GELTOKIA: BIKTIMAK	
Bibliografia	Beste baliabide didaktiko batzuk
<p>·Galtung, J.: <i>Paz por medios pacíficos. Paz y conflicto, desarrollo y civilización</i>. Bakeaz / Gernika Gogoratzuz. Bilbao. 2003.</p> <p>·Acosta Mesa, A.: <i>Regulación de conflictos y sentimientos</i>. Granadako Unibertsitatea. 2004.</p> <p>·Elkarri: <i>Bakearen eta elkarrizketaren alde Euskal Herrian</i>. Buletina 28. zk. 2005.</p> <p>·Etxeberria, X.: <i>Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo</i>. Bakeaz. Bilbao. 2007.</p>	<p>·Filmak: Cobardes; The Klass.; Bullying; Elephant; Machuca.</p> <p>·Dulcic Mónica S. eta Paulina Fajardo: <i>Educación para la paz. Habilidades de comunicación</i>. Unidad didáctica. Centro de Investigación para la paz.</p> <p>·Harillo, S., Prieto, J. eta Ugarte, J. (Coord.): <i>Marka uzten diguten istorioak. Terrorismoaren biktimak bake hezkuntzan</i>. Bigarren hezkuntzan erabiltzeko gida didaktikoa. Bakeaz. Bilbao. 2010.</p> <p>·Baketik: <i>Bihotzetik modulu didaktikoa</i>. 2011.</p> <p>·Manuela Carmena, Jon Mirena Landa, Ramón Múgica eta Juan María Uriarte: <i>Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarritzko txostena (1960-2013)</i>. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz. 2013ko ekaina.</p> <p>·<i>Adi-adian grabatutako lekukotzak</i>. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz. 2013ko abendua.</p>

⁽¹⁾ http://convivencia.files.wordpress.com/2008/11/actividades_culturapaztuvilla-200068p.pdf

⁽²⁾ <http://web.educastur.princast.es/cpr/gijon/recursos/GuiaDerechosHumanos.pdf>

Bibliografía. Beste baliabide didaktiko batzuk

4. GELTOKIA: ENPATIA

Bibliografía	Beste baliabide didaktiko batzuk
<p>·Barrutia, A.: <i>Competencias interpersonales</i>. En A. Barrutia (Ed.), <i>Inteligencia emocional en la familia</i> (pp. 381-416). Toromítico. 2009.</p> <p>·Carpena, A.: <i>Educación socioemocional en la etapa de primaria</i>. Octaedro. 2003.</p> <p>·Ciaramicoli, A.: <i>“El poder de la empatía”</i>. Ed. Vergara. 2000.</p>	<p>·Monjas, M.I.: <i>Programa de enseñanza de habilidades de interacción social</i>. Ed. <i>Ciencias de la Educación preescolar y especial</i>. Madrid. 2000</p> <p>·Mantilla, L. y Chain, I.: <i>Habilidades para la vida</i>. EDEX. Bilbao. 2006.</p> <p>·Proyecto Junan: <i>Proyecto Mochil</i>: Guía Didáctica Nº2 .⁽³⁾</p> <p>·www.propuestaizan.org. Películas: <i>ET, Voces inocentes, La espalda del mundo</i>.</p>

5. GLTOKIA: BIZIKIDETZA

Bibliografía	Beste baliabide didaktiko batzuk
<p>·Torrego, J.C.; Moreno, J.M.: <i>Convivencia y disciplina en la escuela. El aprendizaje de la democracia</i>. Alianza. 2003.</p> <p>·Ortega, R.: <i>La convivencia escolar: ¿Qué es y cómo abordarla?</i>. Ed. Conserjería de Educación y Ciencia. Junta de Andalucía. 1998.</p> <p>·Pérez Serrano, P. Pérez de Guzmán, M.V.: <i>Aprender a convivir: el conflicto como oportunidad de crecimiento</i>. Narcea. 2011.</p> <p>·De Vicente Abad, J.: <i>7 ideas clave: escuelas sostenibles en convivencia</i>. Grao. 2010.</p> <p>·Gracia, J. y Negrillo, C.: <i>“Tolerancia para la convivencia”</i>. <i>Aula de Innovación Educativa</i>. Revista Aula de Innovación Educativa 167. 2007.</p>	<p>·Cascón, P. eta Beristain, C.M.: <i>Jolasaren alternatiba (I). Bakerako hezkuntzako jolasak eta dinamikak</i>. Catarata. 2010.</p> <p>·Cascón, P. eta Beristain, C.M.: <i>Jolasaren alternatiba (II). Bakerako hezkuntzako jolasak eta dinamikak</i>. Catarata. 2010.</p> <p>·<i>Educación para la Paz y la Convivencia</i>. Eusko Jaurlaritza, Bakeola eta besteak.⁽⁴⁾</p> <p>·www.propuestaizan.org</p>

⁽³⁾ fundacionjunan.org/trim1/cas/empatia/Guia.pdf

⁽⁴⁾ http://www.bakeola.org/adjuntos/educacion_paz_convivencia.pdf



6. dokumentua

Eusko Jaurlaritzaren eta hiru
euskal unibertsitateen arteko
oinarrizko hitzarmena

Eusko Jaurlaritzaren eta hiru euskal unibertsitateen arteko oinarrizko hitzarmena

Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 8a



Oinarrizko hitzarmena, Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen eta Euskal Autonomia erkidegoko administrazio orokorraren artekoa, Euskadiko 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planari Euskal Unibertsitateek egin diezaioketen ekarpen partekatua diseinatu, garatu eta gauzatzeko dena.

Parte hartu dute

Iñigo Urkullu Renteria jauna, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRATZIO OROKORRAREN izenean eta haren ordezkari.

Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO errektorea, aipatutako unibertsitatearen izenean eta haren ordezkari, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek emandako eskumenen babesean (IFK: Q4818001B; egoitza: Sarriena auzoa, z.g. Leioa-Bizkaia).

Jose Maria Guibert Ucin jauna, DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO errektorea, aipatutako unibertsitatearen izenean eta haren ordezkari, Deustuko Unibertsitatearen Estatutuek emandako eskumenen babesean (IFK: 4868004E; egoitza: Unibertsitate etorbidea, 24. 48007 Bilbo-Bizkaia).

Iosu Zabala Iturralde jauna, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO errektorea, aipatutako unibertsitatearen izenean eta haren ordezkari, MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN Estatutuek emandako eskumenen babesean (IFK: F20560991 ; egoitza: Goiru kalea, Arrasate-Gipuzkoa).

Alde guztiak oinarrizko hitzarmen hau sinatzeko behar besteko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta, horretarako, ondokoa

Adierazi dute

Eusko Jaurlaritzak Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortu du X. legegintzaldian, egitura bakar batean biltzeko aurreko Biktimen Zuzendaritza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza. Idazkaritza Nagusi horren eginkizuna da bakea behin betiko eta modu itzulezinean sendotzen laguntzea eta bizikidetzaren sozial eta politikaren hobekuntza sustatzea.

Gizartea elkartzea helburu 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planerako proposamena aurkeztu zien lehendakariak euskal unibertsitateetako errektoreei 2013ko ekainaren 19an, proiektu horrek gizartearen eta politikaren arloetan partekatutako ibilbide bat proposatzen baitu. Planean, guztira, 18 ekimen aurkezten dira, lehentasunezko hiru jardun arlotan banaturik.

Gizartea elkartzea helburu 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planeko ekimenetako bat, hamaikagarrena, euskal unibertsitateei dagokie. Ekimen horrek unibertsitateen ekarpen partekatua eskatzen du, bakea eta gizartearen elkarketa finkatzeko egungo prozesurako. Unibertsitateen ekarpen horrek gure bizikidetzak gaur egun dituen funtsezko eta lehentasunezko erronka batzuetan oinarritu behar du, iraganera, oraindira edo etorkizunera begira. Gainera, lan horren gaia eta eremu zehatza unibertsitateekin elkarriketatuz eta adostuz identifikatuko dira. Ekarpen horrek ekarri behar du berekin oinarri zientifikoa eta akademikoa duen proiektu bat, bakearen eta bizikidetzaren arloan aurreratzea ahalbidetzeko bokazio praktikoa eta zehatza duena, eta 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planean adierazitako ezaugarri batzuk bildu beharko dituen eraginkorra izateko.

Oinarrizko hitzarmen honen helburua da aipatutako unibertsitateen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lankidetzarako eremu bat zehaztea, aipatutako xedea lortze aldera, bai eta alde bakoitzak horretarako jarriko dituen baliabideak egokiro koordinatu ahal izateko oinarriak ezartzea ere.

Adierazitakoaren bidetik, aldeek lankidetzarako oinarrizko hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausulen arabera:

Klausulak

Lehenengoa. **Helburua**

Oinarrizko hitzarmen honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen lankidetzarako eremua zehaztea, Gizartea elkartzea helburu 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planeko 11. ekimenean adierazitako ekarpen partekatua diseinatu, garatu eta gauzatzeko proiektu baten edo batzuen bidez.

Bigarrena. **Proiektuak definitzea**

Lan talde bat eratuko da proiektu bakoitzerako, unibertsitateek izendatuko dituzten ikertzaileek osatua (unibertsitate bakoitzak bat), proiektua definitzeaz arduratuko dena. Taldeak aldiro egingo ditu bilerak, nahiz eta hori ez den izango traba talde horretako ikertzaile bik edo gehiagok beren aldetik bilerak egin ditzaten.

Edonola ere, proiektu guztiek bete beharko dituzte Gizartea elkartzea helburu 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planeko 11. ekimeneko 3. atalean aipatzen diren ezaugarri eta irizpide hauek:

- Proiektuak bokazio zehatza eta praktikoa izango du nabarmenki. Ildo horretatik, aplikazio proposamen batean gauzatuko da.
- Proiektuak dimentsio zentzuduna izan beharko du, ez neurrigabea, ezta handiustekoa ere, eta haren gizarte erabileran eta euskal unibertsitateen artean sinergiak sortzeko ahalmenean oinarrituko da.
- Proiektu hau diseinatzeko, egiteko eta aplikatzeko prozesuan gizarte zibilak eta haren gizarte eragileek lagundu ahal izango dute.
- Eusko Jauriaritzak bakearen eta bizikidetzaren arloan Europar Batasunarekin nahiz Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioarekin ezar dezakeen elkarlaneko programen esparruan nazioarteko lankidetzaren lerroak eta beste unibertsitateekiko lankidetzaren lerroak ezarri ahal izateko aukera egongo da.

Proiektu bakoitzetik aplikazio edo ekintza proposamenak aterako dira, bat egingo dutenak ekarpenaren izaerarekin.

Bake eta Bizikidetzaren Planak mugatutako 2013-2016 aldian egin beharko dira proiektu guztiak.

Hirugarrena. **Proiektuak gauzatzea**

Proiektuak abian jartzeko, eta beharrezkoa izanez gero, tresna juridikoak bideratuko dira kasu bakoitzean, betiere aldean aurrekontuetan horretarako dirurik badago, eta egin beharreko tramite guztiak egin ondoren..

Laugarrena. **Aldeen konpromisoak**

Unibertsitateek, batetik, itzal handiko irakasle eta ikertzaileak izendatuko dituzte, oinarrizko hitzarmen honen helburu diren proiektuak garatu eta gauzatu ditzaten; eta, bestetik, horien eskura jarriko dituzte beren baliabide bibliografikoak, datu baseak, sareetarako sarrera eta bestelako baliabideak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez, eskuragarri jarriko ditu bere baliabide materialak, bibliografikoak, datu baseak, sareetarako sarrera eta beharrezkoak izan daitezkeen gainerako guztiak, betiere aldean ekarpenen baliokidetasun irizpideei jarraituta. Era berean, proiektu bakoitza diseinatu, garatu eta gauzatzeko beharko diren baliabide ekonomikoak jarriko ditu, horretarako egingo den hitzarmen edo tresna juridikoan jasoko denaz bat.

Bosgarrena. **Jarraipen Batzordea**

Jarraipen Batzorde bat eratuko da, unibertsitate bakoitzeko errektoreorde batek eta Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak osatua.

Hauek dira aipatutako batzordearen eginkizunak:

- Hitzarmen honen testuinguruan egingo diren proiektuak onartzea.
- Oinarrizko hitzarmen honen jarraipena egitea, hitzarmena interpretatzea eta hitzarmena aplikatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea.
- Ikertzaileek planteatzen diren gaiez arduratzea.
- Proiektu bakoitzaren garapenari jarraipena egitea.

Jarraipen Batzordearen araubidea bat etorriko da aplikatuko zaizkio Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak kide anitzeko organoetarako ematen dituen arauekin (aipatutako legeko II. titulua, II. kapitulua).

Seigarrena. **Iraupena**

Oinarrizko hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera egongo da indarrean, 2016ko abenduaren 31ra arte. Hitzarmena luzatu ahal izango da, aldeek hala adostu eta idatziz adierazten badute.

Zazpigarrena. **Hitzarmena baliogabetzea**

Honako oinarrizko hitzarmen hau aurreko klausulan ezarritako epean zehar amaituko ahal da edo aldeek idatziz adierazitako erabakiarengatik.

Halaber, aldeetako edozeinek amaitutzat jo ahal izango du aldebakarrekotasunez, aldez aurretik idatziz jakinarazita, gainontzeko aldeei adieraziko zaiona, gutxien dela, hiru hilabeteren aurrekotasunez.

Nolanahi ere, egite bidean liratekeen jarduerak edo hirugarren aldeekiko konprometitutakoek aldeak loturik izango dituzte, jarduerok amaitu bitartean.

Aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, aldeek oinarrizko hitzarmen hau sinatu dute, lau aletan eta orri guztietan, idazpuruan adierazitako toki eta datan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorretik izenean

Iñigo Urkullu Renteria
Lehendakari

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen izenean

Iñaki Goirizelaia Ordorika
Errektorea

Deustuko Unibertsitatearen izenean

José María Guibert Ucín
Errektorea

Mondragon Unibertsitatearen izenean

Iosu Zabala Iturralde
Errektorea



7. dokumentua

Ahotsak Proiektua

Azken txostena

Ahotsak Proiektua



Gasteiz, 2016ko apirilaren 18a
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

1. Proiektuaren aurkezpena

Ahotsak proiektua Euskal Herriko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak 2014ko urtarrilaren 8an Eusko Jaurlaritzarekin sinatu zuten esparru hitzarmenean kokatzen da, EAEko hiru unibertsitateek 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planari egin diezaioketen ekarpen partekatua diseinatu, garatu eta gauzatzea xede duenean, hain zuzen ere.

Giza eskubideen inguruko hezkuntzak etengabeko erreferentzia izan behar du gure ikaskuntza prozesuan, ezbairik gabe. Baina, ETaren indarkeria behin betiko eten den egoera honetan, lehentasun handiagoa hartzen du Bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntzan inbertitzeak. Behar-beharrezkoa da euskal gazteriak giza eskubideekin duen konpromisoa indartzera bideratutako programetan eta ekintzetan inbertitzea, gure herrialdean azken hamarkadetan gertatutako guztiaren analisi kritikoa abiapuntu hartuta.

Derrigorrezko hezkuntzan badira bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza ekimenak eta egitasmoak; ildo bereetik jarraituz, komeni da gai horiek unibertsitate esparruan ere lantzea eta, horretarako, euskal unibertsitate sisteman elkarrekin lan egiteko bideak aztertzea.

Bide horretan, euskal unibertsitateek Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzarekin adostu zuten proiektu bat diseinatzea:

- 1) ibilbide egingarri bat eta proposamen praktiko bat definituko zituena, Bakegintzarako eta bizikidetzarako hezkuntza unibertsitate esparruan txertatzeko.
- 2) esperientzia pilotu bat aurrera eramatea ahalbidetuko zuena, hiru unibertsitateetako bakoitzean.

2. Helburuak eta espero ziren emaitzak

Ahotsak proiektuaren helburua zen unibertsitateko ikasleen gogoeta sustatzea Euskal Herrian bizi izandako terrorismoaren, indarkeriaren, giza eskubideen urraketen eta bakegintzaren inguruan, ikus-entzunezko hainbat materialen bidez, esperientzia kolektibo honen inguruko ahotsen aniztasuna modu zabalean erakutsita.

Proiektuaren emaitzak:

- **Webeko biltegia (1E):** Sarbide askeko web honetan, ikus-entzunezko 12 baliabide jaso dira, Euskal Herrian bizi izandako terrorismoaren, indarkeriaren, giza eskubideen urraketen eta bakegintzaren inguruko gaiei lotutakoak. Horiekin batera, unibertsitateko irakasleentzako gida didaktiko erraz bat prestatu da, eskoletan gai hori lantzen laguntzeko. Web biltegi hori www.eskolabakegune.euskadi.eus webgunearen baitan kokatu da.
- **Esperientzia pilotua (2E):** Hiru unibertsitate parte hartzaileetako bakoitzak esperientzia pilotu bat egin du proposatutako baliabideetako batzuekin eta dagozkien gida didaktikoekin. Guztira 280 ikaslek hartu dute parte esperientzia horretan, 2015eko urrian, azaroan eta abenduan.

3. Proiektuaren prozesua

Unibertsitateetako bakoitzak ordezkari batzuk izendatu zituen, proiektua kudeatuko zuen unibertsitate arteko lantaldeko kide izateko. Deustuko Unibertsitateak hartu zuten lantaldearen gidaritza; horregatik, unibertsitate horretako lau irakaslek osatu dute oinarrizko lantaldea.

Lantaldeak osatuta, uztailean unibertsitate arteko lantaldearen lehenengo bilera egin zen, arestian aipatutako helburuak eta emaitzak lortzeko ekintza plana adosteko.

Irailetik aurrera, adostutako ekintza plana gauzatzen joan da, eta unibertsitate bakoitzak hartutako konpromisoerantz erantzun die.

2016ko urtarrilerako, aukeratuta zeuden jada ikus-entzunezko 12 baliabide. Baliabide horietako bakoitza lantzeko gida ere prestatuta zegoen. Aldi berean, unibertsitateetako bakoitzak ikasle batzuekin egin zuen esperientzia pilotua.

4. Aukeratutako baliabideak

Guztira, 12 dokumental edo film aukeratu dira. Hautaketa hori egiteko hainbat irizpide erabili ditugu: giza eskubideekiko errespetua sustatzea; askotariko ikuspegiak eta urraketak jasotzea; eta, azkenik, gaur-gaurko materialak izatea. Horrek ez du esan nahi tresna hau hamabi dokumental horietara mugatu behar denik. Metodologia berbera erabil daiteke antzeko gaiak jorratzen dituzten beste dokumental batzuekin ere.

- Al final del túnel - Bakerantza
- El perdón
- El reencuentro
- Glen Cree
- Hablan los ojos
- Reconciliación
- Lasa y Zabala
- Mujeres en construcción
- Perseguidos
- Yoyes
- El valor de la autocrítica
- ¿Por quién no doblan las campanas?

5. Proiektuaren marko pedagogikoa

Ahotsak proiektuak bildutako materialak ez du gaikako egiturarik eta nahi den hurrenkeran erabil daiteke. Gainera, ez da beharrezkoa material guztia erabiltzea. Materiala, hasieran, 12 ikus-entzunezko baliabidek osatzen dute, Euskal Herrian hainbat hamarkadatan bizi izan dugun indarkeriari lotutako gaiak, alderdiak eta uneak lantzen dituztenak, baita gure herrian bizikidetzaren berreraikitze gaur egungo prozesuari lotutakoak ere. Baliabideen hautaketa egiterakoan, lehentasunezko irizpidea izan da gai horien inguruko askotariko ikuspegiak erakustea, ikuspegi horiek, beti ere, oinarrizko bi printzipio betetzen dituztela bermatuta: pertsona guztien duintasuna errespetatzea eta giza eskubideak babestea.

Hezkuntza helburuak

Ahotsak Unibertsitate arteko Proiektuak honako hezkuntza helburuak ditu:

- a) Terrorismoari, indarkeriari, giza eskubideen urraketei eta bakegintzari buruzko gogoetari lagunduko dion prozesu bat sustatzea.
- b) Esperientzia kolektibo horren inguruko ahots aniztasuna adieraztea eta aitortzea.
- c) Azken hamarkadetan gure herrian gertatu den guztiaren inguruko azterketa kritikoa bultzatzea.
- d) Euskal errealitatea baldintzatu duten gertakarien inguruko askotariko bertsioen arteko elkarrizketa bideratzea, arreta berezia jarriz errealitate horren lekukotasuna eskaintzen diguten gertaera, ekin-tza eta esperientzien oroimenean.
- e) Euskal gazteriak giza eskubideekin duen konpromisoa indartzea.

Oinarrizko kontzeptuak

Gida bakoitzak ikus-entzunezko baliabideetako bakoitzean azaltzen diren gai eta kontzeptu gakoak azpimarratzen ditu. Baina gai eta kontzeptu horiek proiektuaren oinarrizko kontzeptuetara eramaten gaituzte (adibidez, giza eskubideak, gatazka, indarkeria, abertzaletasuna, terrorismoa, biktima, biktimarioa, biktimizazioa, sufrimendua, elkartzeko konponarazleak, adiskidetzea, barkamena, bizikidetzea normalizatzea, indarkeria normalizatzea eta justifikatzea, indarkeria deslegitimaztea).

Ikus-entzunezko bakoitzak kontzeptu hori modu batera edo bestera ulertzen eta islatzen du. Hori dela eta, irakasle bakoitzak erabiltzen dituen definizioetan ere ñabardurak egongo dira. Nolanahi ere, material honek proposatzen du, oro har, ikus-entzunezkoak erabiltzea kontzeptu horien esanahiaren inguruan hitz egin eta eztabaidatzeko. Ikasleekin termino horiek eta haiei lotutako oinarri kontzeptuala lantzea funtsezkoa da gatazkari eta bakegintzari buruzko ulermen kritikoa sustatzeko.

Ikus-entzunezkoen eztabaida gidaren egitura

Ikus-entzunezko bakoitzarentzat eztabaida gida bat proposatzen dugu. Deskribapen fitxak ikus-entzunezkoaren laburpena eta oinarrizko informazioa eskaintzen ditu. Gainera, ikus-entzunezko horretan lantzen diren gai eta kontzeptu gakoak identifikatzen ditu. Ondoren, hainbat galdera proposatzen ditu ikasleen gogoetari eta haien arteko eztabaidari laguntzeko.

Ikus-entzunezkoa ikusi aurretik erantzuteko galderen helburua da ikasleak, baliabide horretan lantzen diren gai edo kontzeptu gakoaren inguruan, lehendik dituen jakiteak eta ikuskerak aktibatzea eta gizarteratzea. Ikus-entzunezkoa ikusi ondorengo galderak, berriz, ikasleek gai eta kontzeptu horien ulermen kritikoa sakontzen laguntzea bilatzen dute eta, horregatik, batzuetan, gai oso delikatuaren inguruan hitz egitea eramaten gaituzte.

Galdera horietako batzuek kontzeptuak argitzea dute helburu, gai gakoak ulertzea eta norberak bere iritzia eraikitzea. Beste galdera batzuek gogoeta eta elkarrizketa kritikoa erraztu nahi dute, proiektuaren helburu orokorrei lotuta.

Gida hauetan proposatutako galderak gainera, eta ikastaroaren edo jardueren inguruneak horretarako aukera emanaz gero, komeni da ikasleek nolabaiteko adierazpide analitiko eta/edo sortzaileren bat prestatzea. Lan horretan islatuko dituzte zein gogoeta egin dituzten, zer ulertu duten eta, hala izanez gero, zein ideia aldatu dituzten. Ikaskuntza sendotzen laguntzen du horrek.

Hurrengo lerroetan, ikerketa kritikorako tresnei lotutako hainbat galdera orokor mota identifikatu ditugu, baina galdera mota bakoitza galdera zehatzago bihurtzeko eta hari lotuta, askotariko jarduerak eraman daitezke aurrera:



- Kontzeptuak definitzeko eta argitzeko galderak.
- Gai eta kontzeptu gakoaren inguruan alde aurreko jakiteak eta ikuspegiak aktibatzekeko galderak.
- Gizarte egoera zehatzez konturatzeko galderak.
- Gai gakoetan ingurunearen ikuspegiak biltzeko galderak.
- Ikuspegiaren aniztasuna eta eztabaida ikustaraztekeko galderak.
- Errealitateari planteamendu etikoetatik begiratzeko galderak.

- Desadostasunak gogoetan oinarrituta lantzeko galderak.
- Dilema moralak aztertzeko galderak.
- Gatazkaren eta indarkeriaren arrazoiak, eta indarkeriaren ondorioak –hainbat mailatan– aztertzeko galderak.
- Ohiko ikuskera eta jardunbideen aurrean eta/edo zalantzan jarritakoen aurrean alternatibak sortzeko galderak.

6. Hiru unibertsitateetako esperientzia pilotuaren emaitzak


Esperientzia pilotuko parte-hartzaileen ezaugarriak

Guztira, 11 taldek hartu zuten parte esperientzia pilotuan. Taldeak hautatzeko ez zen adierazgarritasun irizpiderik erabili. Talde horietako zazpik euskaraz egin zuten lan eta beste lau, gaztelaniaz. Eskola bat edo bi eskaini zioten esperientziari. Esperientzia gehienak Gipuzkoan egin ziren. Horregatik, gipuzkoarrak dira 10 parte hartzailetatik 8.



Esperientzian parte hartu zuten gehien-gehienak 18 eta 23 urte artekoak dira, eta graduiko unibertsitate ikasketetako maila guztietan ari dira, lehenengotik hasi eta laugarrenera. Ikasketa batzuetan ikasle gehienak emakumeak izanik, 10 parte hartzailetatik 8 emakumeak izan dira.

Parte hartu duten ikasleek egiten ari diren ikasketak




Parte hartzaileek esperentziaz esan dutena

Esperientzia pilotuan parte hartu zuten ikasleek balioespen inkesta bati erantzun zioten. Inkesta horretan, eskatu zitzairen aukeratzeko proiektuaren helburuetako bakoitzari zegokion lorpen mailarekin zein neurritan zeuden ados. Bi galdera ireki ere baziren, ikasle bakoitzak bere ondorio nagusiak adieraz zitzen.

Parte hartzaileek egindako balioespen orokorra oso positiboa izan da. Esperentzian parte hartu duten 10 ikasletatik 9k esan dute esperentziarekin pozik daudela. Saioak bideratu zituzten irakasleak ere pozik zeuden egindako jarduerekin eta lortutako emaitzekin.

Jarduera emankorra izan da, pozik nago egin dudalako




Galdera irekien erantzunetan ikus daiteke jarduerak ikasle askori lagundu diela 20 urteko gazteentzat hain ezagunak ez diren gertaeren inguruan gogoeta egiten. Zirrara berezia eragin dute biktimen egoera giza ikuspegitik lantzen duten ikus-entzunezko baliabideek.


- “Beste modu batera ikusten lagundu dit”.
- “El odio no sirve para nada salvo para destruirse en el largo plazo”.
- “Gertatutakoa ez ahaztea oinarri modura hartuz, aurrera begiratzea, egindakoak ez errepikatzeko”.
- “El hablar de ello y poner las cartas sobre la mesa ayuda a que no se cree una visión distorsionada de lo que ha pasado y que las generaciones venideras puedan saber lo que pasó y cómo lo vivieron los que estaban allí”.

Proiektuaren helburu zehatzagoak balioesteko orduan, puntuaziorik handienak bi helburuk lortu dituzte: Euskal Herriaren azken urteetako historian indarkeriaren inguruan hitz egiteko aukerak, batetik; eta gaiaren inguruan askotariko iritziak entzun ahal izateak, bestetik.

Euskal Herriko indarkeriaren inguruan gogoeta baliagarria sorrarazi du



Ahotsen aniztasuna ezagutu ahal izan dut gaiaren inguruan




Ikasleek diote esperientzia honek aukera eman diela gertatutakoaren inguruan zuten ikuspegia aberasteko eta iraganaren irakurketa kritikoa egiteko beharrezkoak diren elementuetako batzuk hobeto ulertzeko:


- “Ezagutzen nituen aurretik kasu batzuk, baina kasu konkretuak bata bestearen aurrean ikusteak asko laguntzen du”.
- “Tenía la idea de que las personas que han sido miembros de ETA no sentían tal arrepentimiento”.
- “Hobeto ulertu dut biktimaren kontzeptua”.
- “ETAko kideen postura holakoa izatea ez nuen espero”.
- “Gatazkaren alde ezberdinak ezagutzen nituen baina orain modu zabalagoan ezagutu ditut”.

Parte hartzaileek azpimarratzen dute, halaber, esperientzia hau baliagarria dela hainbat gaitasun orokor lan-tzeko, besteak beste, pentsamendu kritikoa, elkarrizketarako gaitasuna eta pertsonen arteko komunikazioa.

Gertaerak modu kritikoan aztertzen lagundu dit



Jarrera desberdinen arteko elkarrizketa erraztu du jarduerak




Parte hartzaileen lekukotasunek erakusten dute aukeratutako ikus-entzunezko baliabideak eta elkarrizketa sustatzeko erabilitako gidak oso baliagarriak izan direla ikasleei beren ikuspegia zabaltzen laguntzeko eta enpatia lantzeko, alegia, beste modu batera pentsatzen dutenen edo beste bizi esperientzia batzuk izan dituztenen tokian jartzeko.

- “Besteen jarrera ulertzeko esfortzua egitea bultzatzen du”.
- “Es muy positivo el diálogo como forma de intentar cerrar heridas en la sociedad vasca”.
- “Nire ideiak edo pentsamenduak ikuspegi orokorrago bat dute”.
- “Modu zabal eta irekiago batean ikusten ditut gauzak”.
- “Hau ikusita, esan dezaket ez dudala nire ideia edo pentsamendua aldatuko edo beste modu batera ikusiko, baina bai bestelako jarrerak errespetu handiagoz ikusi eta ulertzera bultzatu nauela esango nuke”.

Azkenik, hamar parte hartzailetatik zortzik uste du jarduera honek lagundu diela giza eskubideen balioa hobeto ulertzen.

Giza eskubideen balioa hobeto ulertu dut



Jasotako lekukotasunek nabarmentzen dute pertsonen duintasuna kontuan hartzeari garrantzi handia ematen diotela eta pertsonen oinarrizko eskubideen edozein urraketa larritzat dutela.

- “La vida tiene mucho valor, más que cualquier país o bandera”.
- “Errespetuan oinarritutako elkarbizitza bat sortu behar dugu”.
- “Etiketak alde batera utzi eta pertsona osotasunean hartu behar dela ohartu naiz”.
- “Gutxieneko eskubide batzuk errespetatzea beharrezkoa dela iruditzen zait”.
- “Principalmente que se den cuenta de que matar no está justificado en ninguna situación, por lo que aunque es entendible que se crea en la reinserción en sociedad de los terroristas, nunca se podrá defender lo que hicieron”.
- “Ekintza txarrak txarrak direla beti biktima edozein dela ere”.

7. Balioespen orokorra

Unibertsitate arteko lantaldeak proiektua, oro har, oso modu positiboan balioetsi du, egoki bete baitira helburuak eta espero ziren emaitzak.

Nolanahi ere, Ahotsak ekimena, EAEko unibertsitateek bakearen eta giza eskubideen hezkuntzari egiten dioten berariazko ekarpena, esparru zabalago batean kokatu behar da, hain zuzen ere, unibertsitateek

bizikidetzari egiten dioten ekarpenean, curriculumeko jardueraz, curriculum kanpokoaz, ikerketakoez eta jakintzaren transferentziakoez baliatuz.

Ahotsak hiru unibertsitateek elkarrekin egin duten lehenengo esperientzia da eguneroko irakaskuntza jardueretan Euskal Herrian bizi izandako terrorismoaren, indarkeriaren, giza eskubideen urraketen eta bakegintzaren inguruko gogoeta kritikoa egiteko.

Esperientzia horretan, Ahotsakek irakasleentzat baliabide funtzional eta erabilgarria eskaintzeaz gainera, lehenengo esperientzia pilotu bat ere eraman du aurrera. Esperientzia pilotuak agerian utzi du proiektuaren eragina eta ikasleen balioespen positiboa.

Horregatik guztiagatik, Ahotsak abiapuntu ona da elkarrekin helburu horien inguruan lan egiten jarraitzeko. Zehazki, proiektuak etorkizunerako aukera interesgarriak irekitzen ditu, bai baliabidea, osotasunean, erabiltzen jarraitzeko, eta bai dokumental berrieekin osatzeko.